



“Urtebete daramagu kantuak lantzen, eta gogo itzela dugu egiten gabiltzana erakusteko”

Izaro Andres Zelaiefa
Abeslaria • 14

Emakume sahararrei laguntzeko proiektua ipini dute martxan Rio de Oroko zazpi neskak

Durangaldea | Sahararen aldeko elkartasun ekimen berri bat jaio da; hain justu, elikagaien karabana harantz irtengo den atarian . • 5. orrialdea



“Triatloia lehia baino gehiago da guretzat”

Triatloia bidaiatzeko, mundua ezagutzeko eta elkarregaz denbora igarotzeko aitzakia izan da sarritan Bereziartua familiarentzat. Horrek ez du esan gura denborapasa bakarrik aritzen direnik: Txela Bereziartuak Euskadiko duatloi txapelketa irabazi berri du beteranoen sprint modalitatean, eta Paul semea azpitxapeldun geratu da junior mailan. • 2-3. orrialdeak

LEHOR ELDORRAGA

Oizko hegazkin istripua gertatu zela 33 urte bete dira asteen

DURANGALDEA | Joseba Etxaburu suhiltzaile durangarrak istripu horren inguruan dituen bizipenak azaldu ditu ANBOTOri emandago elkarrizketan.

4. orrialdea



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C - Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 - Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



10m



MASTIL BERTIKALA
LEKU TXIKIETAN LAN EGITEKO
Lanerako altuera 10 metro
Metro bateko zabalera



Paul Bereziartua Plaza
Mugarra Triatloi Taldeko
atleta
Durango | 2000

Anne Bereziartua Plaza
Mugarra Triatloi Taldeko
atleta
Durango | 2005

Serafin 'Txela' Bereziartua Zubizarreta
Mugarra Triatloi Taldeko
atleta
Durango | 1967

“Munduko toki asko ezagutu ditugu triatloiari esker”

Esperientzia handia duen aitak, umetatik bokazioa erakutsi duen semeak eta kirola gozatzeko darabilen alabak Mugarra Triatloi Taldeko familia berezientakoa osatzen dute

TRIATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Brasil, Mexiko, Ameriketako Estatu Batuak, Hawaii... munduko hamaika toki ezagutu dituzte triatloiari esker. Txelaren abentura non, bere familia ere han. Elkarrengaz esperientzia berriak bizitzeko aitzakia moduan hartu dute kirola. Umetatik bizi izan duten mundua denez, ez da harrizkoa gaur egun seme-alabak Mugarra Triatloi Taldean ibiltzea. Annek, 12 urtegar, gozatzea du helburu. Paul, aldiz, 17 urtegar, lehian murgilduago dago. Duetloietako sprint modalitatean Euskadiko azpitxapeldun geratu berri da. Aita ez zaio atzean geratu: veteranoen Euskadiko txapelketa irabazi du.

Txela, espero zenuen txapeldun geratzea?

Serafin Bereziartua: Nire errendimenduz dudak nituen. Iaz Paulegaz mendiko bizikletan nembilela erori eta lesionatu egin nintzen. Bueltatu nintzenean triatloiak lehiatu nituen, baina

urte bi neramatzan duatloirik egin barik. Giharrentzat oso gogorra izaten da. Baina txapelketan oso gustura ikusi nuen nire burua: bizikletan indartsu eta korrika erritmo onean.

Paul, eta zuk zer deritzozu aitaren lorpenari?

Paul Bereziartua: Bikain. Izena emateko asmoa zuela esan zidan, eta parte hartzen bazuen ezingo ninduela neure lasterketan animatu. Ez zidala ardura erantzun nion, eta lasai parte hartzeko. Asko pozten naiz aitak irabazi izanagaz.

Juniorretan txapeldunorde geratu zinen. Pozik emaitzagaz?

P. B.: Bai, oso pozik. Lasterketa ona egin nuen. Neure maila eman nuen eta ezin dut gehiago eskatu. Kontua da irabazlea oso ondo ibili zela.

Anne, noiztik zabilta MugarraTn?

Anne Bereziartua: Zazpi urtegarz hasi nintzen. Aita eta neba ikusten nituen, eta probatzea erabaki nuen. Gustatu zitzaidan eta bost

urte daramatzat. Astean hiru egunetan entrenatzen naiz.

Duatloiak egiten dituzu?

A. B.: Bai. Ondo moldatzen naiz bizikletan eta korrika, baina gehiago gustatzen zait bizikleta. Errazago moldatzen naizela uste dut.

Asteburuetan familian lasterketak ikustera joaten zarete?

A. B.: Bai, sarritan Paulegaz joaten naiz.

S. B.: Asteburu honetan Gijonera joango gara denok, Paulek Espainiako taldekako kros txapelketan parte hartuko duelako. Murtxe [emaztea], Anne eta hirurok Paul animatzera joango gara.

Zer esperantzazagaz zoaz, Paul?

P. B.: Triatleta batentzat erronka gaitza da, han denak korrika egiten direlako espezialistak. Durangaldea Running taldeagaz arituko naiz.

S. B.: Entrenamendu onak izaten dira. Neguan krosak egitea oso ondo dator sasoi hartzeko.

P. B.: Maila handia egoten da. On-

do ibili gaitzke, baina aurre-aurerian ibiliko garenik ez dut uste. **Zuentzat mundu hau familian elkarrengaz egoteko modu bat ere bada?**
S. B.: Bai. Joan naizen tokira joan naizela, Ameriketara zein Europara, triatloiak familiako planak egiteko erabili ditut. Behin izan ezik, nazioarteko gainerako lasterketa denetara familiagaz joan naiz. Opor moduan aprobetxatu ditugu. Guretzat triatloiak lehia baino gehiago dira. Munduko toki asko ezagutu ditugu triatloiari esker.

“S.B.: “Iron Manak prestatzeko gutxi lehiatu behar da. Orain gurago dut lehiatu, semeagaz egoteko”

Paul, aitaren antzera Iron Manak egitea etorkizuneko helburu moduan duzu?

P. B.: Ikusiko dut. Distantzia luzeak gustatzen zaizkit, baina oraindik ez da horretarako sasoi. Beharbada, hemendik urte batzuetara.

S. B.: Ni horrelako triatloiak egiten ikusi naudelako gustatzen zaizkio distantzia luzeak. Gaur egun 20 bat urteko gazte asko hasten da Iron Manak egiten eta, nire ustez, erabaki okerra da. Gazteentzat prozesu natural ba-

ten ondorioa izan behar du distantzia luzeetara heltzea.

Zu gehiago izan zara proba luzeetako. Paul sprintetan aritzeak eraman zaitu orain laburretara?

S. B.: Bai, horrela izan da. Paul lehiatzen hasi zenean, laburragoetara itzuli nintzen, eta ikaragarri gozatzen nabil. Sentsazio desberdinak dira. Sprintetan hasieratik topera joan beharra dago. Iaz sei-zazpi egin nituen, eta aurten oraindik besteren bat egiteko asmoa dut.

Mexiko, Ameriketako Estatu Batuak, Brasil, Hawaii... Iron Man eta abentura horiek historiara pasatu dira zuretzat?

S. B.: Oraindik ez dut ate hori itxi, baina Paul nagusiago egin arte bere alboan laguntzen egotea da nire asmoa. 23 urtez azpiko mailara igarotzen denean beharbada... Kontua da Iron Manak prestatzeko asko entrenatu eta gutxi lehiatu behar dela, eta orain gurago dut lehiatu semeagaz egoteko. Baina, tira, aurten Iron Man erdi distantziako hiru proba egiteko asmoa dut.

Urteak egiten joan ahala, atea ixtea kostatu egiten da?

S. B.: Entrenamenduetan gozatea da gakoa. Entrenamendua lasterketa bat prestatzeko obligazio hutsa bihurtzen bada... oker gaitza. Entrenatzeko gogo eta ilusioa dudak bitartean, motibazioari eutsiko diot.



Azken 15 urteetan mundu mailako hainbat Iron Man egin ditu Txelak.



Goian: Txela eta Paul 2009an Nizako Iron Manean. Behean: Anne duatloia batean.



Goian: Paul Espainiako txapelketa irabazita. Behean: Paul eta Anne gazteagotan.

Duatloiak ala triatloiak, zein duzue gurago?

S.B./P.B.: Triatloiak askoz gurago. Kostaldeko triatloiariek abantaila dute igerian?

S. B.: Lehenago, bai, gaur egun... Orain 15 urte Mugarran hasi ginenean, oso eskasak ginen igerian. Baina gaur egun gazteak asko entrenatzen dira. Paul asteen lau egun ibiltzen da igerian.

Txela, gaztetan errugbian ibili zinen. Orduan korrika egitea hil ala biziko kontua zen?

S. B.: Benetan be! Oso gogorra iruditu zitzaidan. Hori bai kirol gogorra! Rugby Tabernan lan egin eta DRTgaz entrenatzen nintzen. 30 bat urte izango nituen. Federatu, eta pare bat partidu jokatu nituen. Hegalean jokatu nuen, korrika egiten den tokian, baina ez zen niretzat egindako kirola. Niri eurekin entrenatzea gustatzen zitzaidan.

Noiz konturatun zinen semea zu baino gehiago zebilela triatloian?

S. B.: Kadeteetako lehenengo lasterketetan. Gogoan dut Bermeoko triatloian ikusi ere ez nuela egin lasterketa osoan. Orduan konturatu nintzen. Gaur egun, nire ardura nagusia da Paul erorita ez ikustea. Pentsamendu horixe izaten dut buruan sarritan. Kezka puntu hori ezin izaten dut kendu. Euskadiko txapelketan nik bizikletako lana amaitu eta Paulena eskegita zegoela ikusi nuenean lasaitu egin nintzen. "Heldu da", pentsatu nuen.

Paul eta Anne, aitak aholku asko ematen dizkizue?

P. B.: Aitaren aholku denak entzunda ditut. Orain desberdina

da. Bion artean erabakitzen dugu lasterketa bati aurre zelan egin. Ez da berak esan eta nik entzun bakarrik. Bion artean pentsatzen dugu estrategia.

A. B.: Ni lasterketa hasieretan urduri jartzen naiz batzuetan, eta aholkuak ondo etortzen zaizkit lasaitzeko.

S. B.: Izaera aldetik oso desberdinak dira. Annek gozatzeko egiten du eta Paul lehiakorragoa da.

“P.B.: “Aitaren aholku denak entzunda ditut. Orain desberdina da. Bion artean pentsatzen dugu estrategia”

Paul, sen hori txiki-txikitatik datorrizula esan didate. Goienkaleko kaleak atletismo pista izan ohi zirela zuretzat.

P. B.: Lau-bost urte izango nituen orduan. Aitaren lagunek esan izan didate, baina ni neu ez naiz askorik akordatzen...

S. B.: Nik gogoratzen dut. Gure Kabiya taberna izan genuenean, hantxe ibiltzen zen Paul Alde Zaharrean bueltaka bizikleta txiki batez eta guri denborak kronometratzeko eskatzen. Abiadura bizian.

Nazioarteko lasterketetara joaten zinenen ere nabaritzen zitzaizun afizio hori.

P. B.: Bai, zortzi bat urte izango nituen orduan. Hori hobeto gogoratzen dut. Zurichen (Suitza) Mugarra taldeko Gaizka Uriarteren bizikleta hartuta bueltaka...

S. B.: Bizikleta handi geratzen

zitzean, baina ibili egin behar!

P. B.: Bizipen politak bizi izan nituen Zurichen. Oso gomuta onak ditut eta gustatuko litzaidake horrelakoren bat errepikatzea.

Paul, honako egun hau hobeto gogoratuko duzu. Orain urte bi Espainiako triatloi kros txapelketan zapatila bakarragaz egin zenituen bizikletako 11 kilometroak. Zelan moldatu zinen?

P. B.: Trantsizioan galdu nuen. Ez dakit zelan gertatu zen, egia esanda. Konturatu orduko hanka bat pedalean jarrita nuenez, aurrera egitea erabaki nuen. Mingarria zen arren, aurrera.

S. B.: Gainera, aurrean zihoan, Espainiako onenekin. “Ezingo dio euren erritmoari eutsi, inondik inora”, esan nion neure buruari. Bueltan, bizikletatik onenen artean jaisten ikusi nuenean ezin nuen sinetsi.

P. B.: Motibazioagatik izan zela uste dut. Horregatik izan nintzen eusteko kapaz. Tira, 11 kilometro izan ziren, ez zen hainbeste ere.

S. B.: Meritu handia du, benetan. Gero korrika jarraitu zuen, eta bederatzigarren tokian helmugaratu zen. Itzela.

Paul, arantza txiki hori iaz atera zenuen, Espainiako triatloi kros txapelketa irabazita.

P. B.: Egun pozgarria! Euskal Herriko lasterketarik gehienak errepideko bizikletagaz izaten dira, eta han mendiko bizikletagaz aritu ginen. Aukera gehiago ikusten nitzion neure buruari.

S. B.: Normalean, Espainian igerilari eta korrikalari oso onak daude, baina bizikletan ez dira

hain indartsuak. Nahiko lasterketa lauak izaten direlako. Euskadin kadeteetatik ibilbide gorabeheratsuak izaten dituzte, eta ohituago daude.

Txela, iaz zeuk ere izan zenuen zer ospatu. Paulek baino hilabete lehenago Espainiako distantzia erdiko triatloian azpitxapeldun geratu zinen beteroetan.

S. B.: Lesiotik bueltan, gimnasioan ibilita, bai, baina kalean entrenatu barik nengoen. Prestakuntza horregaz ez nuen espero hain ondo ibiliko nintzenik. Beteranoetan maila handia egoten da.

“S.B.: “Lasterketetan gazteekin beroketa ariketak egitea, gure gazteez inguratuta aritzea, altxorra da”

Ardo onaren moduan, urteen joanak mesede egiten dizu?

S. B.: Hori ematen du, bai. Aurten ere joango naiz. Guadalajaran izango da, maiatzean. Baina, badiotsut, nire helburua gozatzea da. Ondo irteten dela? Bikain. Ez dela espero moduan irteten? Ez da ezer gertatzen. Ez gara horretatik bizi. Gozaten nabilen bitartean, aurrera!

Inoiz joan zarete familian oporretan bizikletarik barik?

S. B.: Mendikoa edo errepidekoa uste dut beti eramanez dugula. Ez entrenatzeko. Afizioa dugu, eta inguruak ezagutzeko. Gure auto-karabanan sekula ez da bizikletarik falta.

Txela, aurten 14 urte bete ditu Mugarra Triatloi taldeak. Zu sorreran izan zinen. Zure haurra da hori ere.

S. B.: Ba, bai. Egia esanda, nire seme edo alaba baten modukoa da. Hiru-lau lagun artean sortu genuen. Nik orduan urtebete inguru neraman triatloiak egiten. Mugarra sortu eta handik hiru bat urtera triatloi eskola abiatu genuen. Hori ere beste seme edo alaba bat da. Niretzat oso berezia da triatloi eskola. Orduan ereindakoa jasotzen ari gara. Eskola sortzean bete-betean asmatu genuen.

Zeintzuk dira Mugarra Triatloi Taldearen etorkizunera begirako erronkak?

S. B.: Nagusietan jende gehiagok lehiatzea gustatuko litzaziguke. 30-40 urteko adin tartean ez dugu jende askorik, baina gazteak lanean ikusteak etorkizunari esperantzazagaz aurre egiteko modua eskaintzen digu.

Iaz Durangoko duatloian Mugarrako 11 kadetek parte hartu zuten. Talde bereko hainbeste gazte ikustea duatloi batean ezohikoa da.

S. B.: Horrela da. Eta joan zen asteburuan, Sopelan, Mugarrako 12 izan ginen. Neu izan nintzen nagusi bakarra. Lasterketara joan eta nire semeagaz zein beste gazteekin beroketa ariketak egitea, gure gazteez inguratuta aritzea altxorra da. Gozatu egiten dut. Beste taldeek esaten digute zorzea dugula. Azken hamarkadan egindako lanaren ondorioa da. Batzuek jarraituko dute eta beste batzuek ez, baina hor dauden bitartean eta kirola egiten duten bitartean, gu pozik.

Oinezkoiei lehentasuna emanda berrantolatuko dute eskolarako bidea

OTXANDIO • J.D.

Autobus geltoki ondotik eskolara doan bidea berrantolatuko dute udalak oinezkoek duten lehentasuna azpimarratzeko. Hiru fasetan egingo dute. Aurten lehenengoa gauzatu gura dute, Antomenta izenagaz ezagutzen den zubitik igerilekuko sarrerara doan zatia, hain zuzen ere.

Lehen fasean, Antomenta zubitik igerilekuko sarrera artean dagoen zatian jardungo dute

Zubia estua da eta eskolara doazen umeei eta autoek espazio estu hori partekatu behar dute. Eremu horretan oinezkoek duten lehentasuna markatzeko, bidea espaloien garaierara igoko dute asfalto inprimatua erabilita, Letxeria inguruko bidegurutzean egin duten moduan.

Memoria lantzen ikasteko tailerrak antolatu dituzte jubilatuen lokalean

IZURTZA • J.D.

Durangoko Merinaldearen Amarkomunazgoko Adinekoen Sailak memoria estimulatu ikasteko ikastaroa antolatu du Izurtzako nagusien lokalean. Memoria hobetzeko eta lantzeko hainbat ariketa irakatsiko dituzte, besteak beste. Sei saio eskainiko dituzte egunetan: martxoaren 8an, 15ean eta 22an, eta apirilaren 12an, 19an eta 26an. Tailerrak arratsaldetan izango dira, 17:00etatik 18:30era.

“Oizko errekatxo batean presa inprobisatu bat egin genuen hegazkineko sua amatatzeko”

Joseba Etxaburu Gandiaga suhiltzaileen kaboak Oizko hegazkin istripuan bititako esperientzia azaldu du, 33 urteren ostean

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Aste honetan 33 urte bete dira Oiz mendiko hegazkin istripua gertatu zela. 1985eko otsailaren 19an, Boeing 727 Alhambra Granada hegazkinak istripua izan zuen. Iberiaren 610 hegaldia 08:00etan irten zen Madriletik, eta 9:05ean Sondrikako aireportuan lur hartzea aurrekusi zuten. 9:27an aireportuko kontrol dorrearen eta hegazkinaren arteko komunikazioa eten egin zen. Laino itxia zegoen Oiz mendian. Hegazkinak EITBko antena jo eta su hartu zuen mendian behera eroriz. Ondorioz, 148 pertsona hil ziren, 141 bidaiari eta hegazkineko zazpi langile. Egun hartan lanean zegoen Joseba Etxaburu suhiltzaile durangarra.

Zelan gogoratzen duzu hegazkin istripuaren eguna?

25 urte nituen, eta gogoan dut beldurtuta nindoala. Lehenengo, Iurretako taldea irten zen. Gu beste irteera batean geunden. Deia jaso genuenean, egiten gembiltzana utzi, eta berehala abiatu ginen Oizera. Trabakuatik igo ginen. Mendian behelainoa zen nagusi. Bagenekien hegazkin komertziala zela. Heldu ginenean, denak hilda zeudela ikusi genuen. Guardia zibilak izan ziren helden lehenak.

Zer aurkitu zenuten han?

Ikusi genuena samingarria izan zen. Hegazkinak goiko antena jo zuen, eta mendi-hegalean behera jausi zen. Fuselaje guztia behean zegoen, hainbat gorpugaz batera. Keroseno eta okela-erre usaina zegoen. Edozein lekutara begiratuta, gorpuen zatiak ikusten ziren. Gorpuak desegituratuta zeuden. Baina gure lana egin genuen eta sua itzali genuen.

Mendi-hegalera ezingo zenuten sua itzaltzeko kamioia igo.

Motoponpa batzuk eskuz igo genituen. Oizko errekatxo ba-



Etxaburuk 33 urte eman ditu Iurretako suhiltzaileen parkean. Duela urtebetetik hona, Uriosteko parkean dihardu kaboak.

tean presa inprobisatu bat egin genuen, eta handik atera genuen hegazkineko sua amatatzeko ura. Kontuan izan kerosenoa zegoela inguruan.

“**Kuxkuxero mordoa igo zen; egun hartan Trabakuako errepedea blokeatu egin zen**”

Suhiltzaile hasiberria zinen.

Urtebete inguru neraman suhiltzaile legez lanean. Bitxia da, astebete lehenago lagunei esan nielako ordura arteko istripu eta suteetan ez nuela heriotzarik izan. Denboragaz, gaur egun

dudan esperientziagaz, esan dezaket hildakoak ez direla lan honen alderik gogorrena, gertukoak ez badira. Zaurituta dauden pertsonak dira larritasunik handiena eragiten dutenak.

Nahasmen handia sortu zen?

Horrelako katastrofe bat pasatu eta gero baloratzen diren gauzak dira. Baten bat ebakatu behar izan balitz oso zaila izango zen. Kuxkuxero mordoa igo zen, eta bidea oztopatzen zuten. Gainera, zerbitzu larregi bertaratu ziren. Orain larrialdien zentro bat dago eta laguntza askoz garatuago dago. Berehala ixten dira errepedeak. Zentzu honetan, aurrepauso handiak egon dira. Baina, egun hartan, Trabakuako errepedea blokeatu egin zen.

33 urteko ibilbidean beste horrelako egoerarik bizi izan duzu?

Hainbat egoera zail bizi izan ditudan arren, antzekorik ez. Baina hemen istorio asko bizi ditugu egunero. Beste profesionalak egin ezin dutenerako deitzen digute. 112ra deitzen dutenean, ez badago argi Ertzaintzak edo Gurutzetak egin dezaketean, suhiltzaileoi deitzen digute. Azkenean, zaila izaten da arriskua non dagoen jakitea. Argi dugu pertsonen eta gure bizia dela garrantzitsua; beraz, sekula ez dugu bizirik arriskuan jarriko eraikin bat salbatzearren. Pertsona bat salbatzeko, ostera, arriskatzeko prest gaude. Protokolo bat dago, baina, batzuetan, zaila izaten da neurri horiek betetzea.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko otsailaren 23a
16. urtea - 710. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Gammar proiektua: Durangaldeko emakumeak Saharakoekin elkarlana sustatzen

Rio de Oro elkarteko emakume bi errefuxiatuen kanpamentuetan egon dira, eta tailerrak eskaini dituzte

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Emakume batek bere jabekuntza prozesuan trabak gainditu behar baditu, imajinatu traba horiek zelan biderkatzen diren errefuxiatuen kanpamentu batean bizitzerakoan. Tindufeko (Aljeria) emakume sahararren kasua da hori, Marokoren okupazioaren ondorioz errefuxiatuen bizimodu zail horretara behartuta daudenak. Ahalduz laguntzeko asmoz, hango emakumeekin elkarlana sustatzeko proiektu bat sortu dute Rio de Oro elkarteko zazpi neskek, Gammar izenpean *-ilargia* esan gura du-. Euretako bik kanpamentuetarako bidaia egin dute, eta tailerrak eskaini dituzte.

Saharako Emakumeen Bata-sun Nazionalaren aldeko euskal sarearen bidez Bojadourreko Emakumeen Etxean eta Emaginien Es-

Anatomiaz, hilerokoaren zikloaz eta odola batzeko alternatibez berba egin dute, adibidez

kolan egon dira tailerrak ematen. “Emakumeen artean berba egiteko espazioak sortzea izan da helburu nagusia”, esan dute. Anatomiaz, hilerokoaren zikloaz eta odola batzeko alternatibez berba egin dute,

“Handik ezin dira irten, eta egoera horretan asko eskertzen dute horrelako ikastaroak jasotzea”

adibidez. Emakumeen Etxeetako osasun eragileak izan dira euregaz egon direnak eta, beraz, horiek beste emakume batzuei helaraziko diete ikasitakoa. “Handik ezin dira irten, eta egoera horretan asko eskertzen dute horrelako ikastaroak jasotzea. Elkarlanean gaudela sentitzea behar dute”, esan dute Rio de Orokoek. Emaginak dira bidaian joandako biak, baina osasun aditu ez direnak ere badaude taldean.

Jakin-mina dute
Egindako tailerretan, gorputza ezagutzeko izan da lanerako lerro



nagusia. “Erditzeari buruz galdera pilo bat egin dizkigute; horri buruz jakitea ere boteretzea da. Himena, klitorisa, dilatazioa, menopausia... Horietaz guztietaz jakiteko gogo handia dute”, adierazi dute.

“Erditzeari buruz galdera pilo bat egin dizkigute; horri buruz jakitea ere boteretzea da”

Sahararrek ezinbestekoa dute atzerriko laguntza. Elikagaiak eta material ugari jasotzen dituzte kanpoko elkarte eta pertsona solidarioen eskutik. Higiene baldintzak ere ez dira onenak, eta, hain zuzen, konpresak dira hara bidaltzen di-



ren produktuetako batzuk. Egoera horretarako alternatiba bat eskaini guran, hilerokoaren kopak eraman dituzte Rio de Oroko kideek, hango emakumeek ezagutu eta probatu ditzaten. DRTk egindako jardunaldi solidario batez finantzatu dituzte kopa horiek. Aipagarria

da ere, martxoaren 8aren harira Durangon egingo den Lilakroseko dirua ere Gammar proiekturako izago dela.

Aurrerantzean, Saharako beste zonalde batzuetako emakumeekin elkarlanean jarraitzea da euren asmoa.

“Espero baino bilketa handiagoa” izan da Sahararen aldekoa: 8 tona elikagai eta 500 kilo arropa jaso dituzte

Kanpainan batutakoaz aparte, 12 tona elikagai erosi dituzte antolatzaileek, eta baita 1.300 konpresa pakete ere



Kamioia prestatzen ibili dira azken egunotan, eta bihar irtengo da Tindufeko kanpamenduetarantz.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
“Espero baino bilketa handiagoa” izan da aurten Sahararen aldeko karabana solidarioarako lortu dutena, koordinazioaz arduratu den Rio de Oro elkarteko Mikel del Arcok adierazi duenez, eta “oso pozik” daude emaitzagaz. Euregaz batera, Elorrioko Lajwadek ere bultzatu du egitasmoa. Gainera, eskualdeko udal gehienek, ikastetxeen, Abadiñoako Eroskiren eta zenbait elkarteren laguntza ere eduki dute. Kanpaina amaituta, Durangaldeko herritarrek 8 tona elikagai eman dituzte, 1.000 konpresa pakete, eta 500 kilo arropa ere bai.

Kanpainan batutakoaz aparte, 12 tona elikagai erosi dituzte antolatzaileek, eta baita 1.300 konpresa pakete ere.

Kamioia bete gura izan dute, baita beste elkarte batzuen materialagaz ere. Esaterako, Hamadako Izarrak taldeak baldosak sartu ditu, emakumeek lan egiteko pizzeria eraikitzeko proiekturako. 50 eguzki plaka, Durangoko Udalak dohaintzan emandako 15 bizikleta, eta ospitale baterako 50 kilo higie-ne-produktu ere garraiatuko dituzte kamioian.

“Proiektu konplikatu” dela ikusi dute aurten estreinatuta diren Rio de Orokoek, eta, horregatik, gehiago baloratu dute iaz arte Herria

Hamadako Izarrak taldeak baldosak sartu ditu, emakumeek lan egiteko pizzeria sortzeko

elkarreak egindako lana. Aurten ere logistika arloan lagundu diete. Kamioia bihar irtengo da Aljeriako saharar errefuxiatuen kanpamenduetarantz, euskal karabanagaz.

Ziritza eta Bustintzako bizilagunen kezkak: lapurretak, puntu beltzak, urbanizazio falta...

San Rokeko promozio publikoko etxeak 2015ean zabaldu zirenetik, “ahaztuta eta bakartuta” sentitzen dira bizilagunak



Iriondo eta Uribe, euren etxe inguruetan. Atari batzuen ateeak belarretara ematen dutela ohartarazi dute.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Igogailuen enpresako teknikari-gaz duten zitaren aurretik hartu dute kazetaria Zalaoa Uribek eta Oihane Iriondok, Ziritza eta Bustintzako etxeen atarrietako presidente bik. Bizilagunek lapurreta ugari eduki dituzte garaje eta trastelekuetan eta, kezkaren aurrean, garajera igogailuan bajatzeko aukera giltzagaz murriztuko dute. Hala ere, ez da hori duten kezka bakarra. Promozio publikoko etxe horiek 2015ean zabaldu zirenetik, “ahaztuta eta bakartuta” sentitzen dira.

Duela aste bi sartu ziren azkenekoz lapurrak, hilabeteen bigarrenenez. “Lau bat bider gutxienez sartu dira hiru urtean”, gogoratu du Iriondok. Bizikletak, eskiak, ordenagailuak... gauza ugari eraman izan dituzte lapurrek. Urtarrilean auto bat ere bai, gerora A-8an Zornotza parean abandonatuta agertu zena, lapurrek istripua eduki eta gero. “05:30-06:00 artean lanera

joaten den jendea beldurtuta bajatzen da garajera, lapurretak beti izan baitira ordutegi berdinean”, kontatu du Iriondok.

“05:30-06:00 artean lanera joaten den jendea beldurtuta bajatzen da garajera”

“Gure etxe ondoko aparkalekuaren segurtasunaz asko kexatu gara, puntu beltza baita”

Puntu beltza

Berez, euren alboko partzelan beste promozio bat garatu behar zen. Baina, proiektu horren berririk ez dago; Iriondori eta Uriberri esan dietenez, enpresak kiebra jo du. Ondorioz, urbanizatu bako

lursail handi bat dute etxe alboan, eta euren etxeak San Rokeko gainontzekoetatik aparte uzten ditu horrek. Segurtasun ikuspegitik ez da onena. “Gure etxe inguruko aparkalekuaren segurtasunaz ere asko kexatu gara, puntu beltza da eta”, esan du Uribek. Emakumeen ikuspegitik arriskutsu izan daitezkeen guneen mapa eguneratu zuen iaz udalak, eta ingurune hori identifikatu eta bat izan zen. Bizilagunek euren etxeetarako joateko bide argitsuago bat egitea eskatuta dute udalarekin.

Lursailaren zaintza faltak ere arazoak ekarri izan dizkie. Esaterako, suge bat agertu zen etxe batean. Aipagarria da, gainera, atari batzuek belarretara ematen dutela; eskerrak bi sarrera dituzten, eta bizilagunak bestetik irten daitezkeela. “Udalak bizigarritasun baimena ematen duenean, urbanizatuta egon behar da, eta gurea ez dago amaituta”, salatu du Uribek.

Kale eta aire garbiago bila

Bestalde, euren kaleak astean birritan soilik garbitzen direla kritikatu dute, eta herriko beste eremu batzuekin berdintzea eskatu dute. Ezin ahaztu ere, eurak direla Fum-

Zarata eta usain gutxiago dagoela uste dute, baina “bete beharreko arauak bete ditzatela” gura dute

barri fundiziotik gertuen daudenak –gai kutsakorrek isuri dituela egiaztatu du Jaurlaritzak-. Neurgailua ipini zenetik, zarata eta usain gutxiago dagoela uste dute Uribek eta Iriondok, baina “bete beharreko arauak bete ditzatela” gura dute.

Ahazturatik irteera gura dute soilik. Arazoei irtenbidea emateko lanean, kazetariagaz solasaldia amaitu eta igogailuan giltza ipintzera doaz.

Berbaro elkarteak aisialdi eskaintza iragarri du udaberri eta udarako

DURANGO • M.O.

Berbaro elkarteak udaberriko eta udarako aisialdi eskaintzak prestatzen hasi da. Gainera, inskripzioa hasiko du otsailaren 27an, martxoaren 6ra bitartean. Izena ematera bulegora joan behar da. Udaberriko Olgetan eta Udako Olgetan eskaintzen kasuan, agertu ahala onartuko dituzte interesdunak, plazak gaituzte gero zozketarik egin barik. Ostera, kanpaldietarako eta ibiltarietarako, zozketa bidez erabakiko dute nor onartu eta nor ez.

Udaberriko Olgetan Aste Santuan garatuko da, eta besteak, udan. Kanpaldiak Mendigorri eta Uitzin izango dira, eta Durangotik Bermeora eta Araiatik Oriola ibiltariak.

Iaz, durangarren 783 kexari eman zieten erantzuna udaltzainek

DURANGO • M.O.

Durango 47 udaltzainen artean kasik 10.000 interbentzio egin zituzten 2017an. Jardueren artean denerik dago: auzokideen 783 kexa, 563 laguntza ekintza pertsonekin, 116 zirkulazio atestatu, 39 atestatu drogak edukitzeagatik... 14 interbentzio indarkeria matxistagaz lotutakoak izan dira.

Interbentzioez aparte, zenbait ikastaro ere egin dituzte formakuntza lez. Gainera, bide zirkulazioan hobekuntzak egiteko asmoz, kanpaina bereziak egin dituzte gazte eta nagusiekin. Aitziber Irigoras alkateak udaltzainen lanaren zailtasuna nabarmendu du. “Durangarreko konpromisoa eta profesionaltasuna agerian jartzen duten datuak dira”, adierazi du.

Monumentuei amantalak jarrita, grebarako deia egin dute feministek

DURANGO • A.M. / M.O.

Irudi kuriosoa agertu zuten martitzenean Durango zentzua monumentuak. Izan ere, martxoaren 8ko greba feminista zabalduz dabilen emakumeek amantalak eta erratzak ipini zituzten. Noski, gizonak dira monumentu horiek sinbolizatzen dituztenak, eta

Datozen egunetako ekimenak babesteko eta errespetatzeko eskatu diote udalari

eurretako bat Frai Juan Zumarraga —Amerikan emakumeen inkesidore izateagatik bere izena kenduko diote institutuari—. Martxoaren 8an emakumeek planto egin eta gizonak lan egin dezaten aldarrikatu gura izan dute ekimenagaz.

Hala ere, martitzenean bertan, amantalak eta erratzak kendu zituen udalak monumentuetatik. Mugimendu feministak kritika egin dio, eta datozen egunetako ekimenak babesteko eta errespetatzeko eskatu dio udalari.



Feministak, Balbino Garitaonandia plazan dagoen monumentuan.

“Txertatu Merkatuan’ programan ikasi dudanak enpresan lan egiteko asko balio izan dit”

Geu Beko gazte batzuek ere parte hartu dute lan mundura hurreratzeko ikastaroan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Langabezian daudenentzat eta ekintzailertzan jardun gura dutenentzat hainbat ikastaro eskaintzen ditu Amankomunazgoko Behargintza zerbitzuak, eta horietako bat Txertatu Merkatuan programa da. Kasu honetan, lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten gazteei bultzada eman gura diete, gaitasunak irabazi eta taldean lan egiteko esperientzia apur bat har dezaten. Joan zen astean amaitutako programaren bigarren edizioan parte hartu duten gazteetako batzuk Geu Be elkarteak dira. Aniztasun funtzionala duten pertsona hauek zailtasun handiak edukitzen dituzte lan munduan sartu ahal iza-

teko. Suzette Amilibia elorriarrak, esaterako, asko eskertu du ikastaroa jasotzea. Gainera, hilabetez lanean egon da garbiketa enpresa industrial batean, eta uste du ondo etorri zaiola. “Txertatu Merkatuan

Behargintzak gazte gehiagori emango die programan parte hartzeko aukera

“Lan egiteko gogoia dut, eta kapaz sentitzen naiz”, azpimarratu du Suzette Amilibiak

programan ikasi dudanak enpresan lan egiteko asko balio izan dit”, dio 22 urteko gazteak.

Gustura ibili da Behargintzako hiru hileko ikastaroan. Bertan, materialak birziklatuta aulkiak eta jokoak sortu dituzte, adibidez. “Zakarrontzira bota beharrean, materialak berrerabiltzea ondo dago”, esan du elorriarrak. Euren produktu horiek Geu Beri eman dizkiote dohaintzan, hain justu ere. Iazko taldeak JAEDi eman zizkion.

“Lan egiteko gogoia dut, eta kapaz sentitzen naiz”, azpimarratu du Amilibiak. Behargintzak gazte gehiagori emango die programan parte hartzeko aukera, martxoan hasiko den hirugarren edizioan.



Goian, Amilibia. Behean, ekitaldia, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea tartean.

Jaiak antolatzeke laguntza eskatu du Jai Batzordeak

Gaur batzarra egingo dute udalbatzar aretoan eta laguntzeko prest daudenei bertaratzeko eskatu diete

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Jai Batzordeak jende gehiago behar du Andra Mari jaiak antolatzeke eta herritarrei laguntza eskatu diete, herrian postontzietan banatutako gutun baten bidez.

Batzordean parte hartzen duen pertsona kopurua “beherantz” joan dela azaltzen dute gutunean. “Gaur egun dagoen pertsona kopuruagaz ezinezkoa da Mañariko Andra Mari jaiak antolatzea”, azaldu dute. Gaur, 19:00etan, batzar bat egingo dute udalbatzar aretoan eta laguntzeko prest daudenei bertaratzeko eskatu diete.

“Herriko jaiak denonak dira, ez dago adinik ez antolaketa lanetarako eta ezta gozatzeko ere. Jai

Batzordearen helburua beti izan da egitarau ahalik eta zabalena egitea. Hori posible egiteko, adin tarte guztietako pertsonak behar dira antolaketa lanetan: nerabe, heldu zein adinekoak ondo etobaten bidez.

“Adin guztietako jendea behar da: nerabe, heldu zein adinekoak ondo etorriak izango dira”

riak izango dira”, jasotzen du gutunak. Jai Batzordea orain sei urte sortu zuen herritar talde batek udalak egindako deialdi bati erantzun zionean.



Andra Mari jaietako ekitaldietako bat herri bazkaria izaten da.

Durangoko Euskara Kontseiluan parte hartu gura duzu?

Durango herri euskaldunagoa bilatzeko langintzan jardun nahi duzu?

Zatoz, martxoaren 7an, eguaztena, arratsaldeko 18:30ean, Durangoko Pinondo etxera

Norbanakoek eta elkarteek hartu dezakete parte. Jakinarazi diezaguzu e-postaz edo telefonoz:
eusker@durango.eus - Tel: 94 603 00 16



Antolinek korrika egitea gustuko du. Maratoi erdiak eta mendi lasterketak egiten ditu.

“Lasterketen egutegi bat prestatu dut erronkara sasoiari heltzeko”

Uztailean 90 kilometro geratu barik egingo ditu Aratz Antolinek ekimen solidario baterako

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

GAES entzumen zentroko lehiaketa batean lortutako beka ekimen solidario bat gauzatzeko erabiliko du Aratz Antolin Izagirrek (Zornotza, 1980). 86 kilometro oinez eta korrika egingo ditu Valladolideko Allende Mundi elkarteari laguntzeko.

Zelan ezagutu zenuen Valladolideko Allende Mundi elkartea?

Lehengusina bat boluntario dabil elkarte horretan. Diru arazoak zi-

tuztela esan zidan, eta orduan okurrirru zitzaidan ideia.

Zer lan egiten dute?

Valladolideko La Rondilla auzoko elkartea da. Beharrezana duten gazteei laguntzen diete, hainbat modutara. Esaterako, eskolan jateko modurik ez dutenei euren lokalean bazkaria ematen diete. Kontua da ez dutela laguntza nahikorik jasotzen eta euren poltsikotik jartzen ari direla dirua. Hango gazte batzuek elkarteko jantokian jango ez

balute, familia asko jan barik geratuko lirarteke. Horrelakoa da egoera auzo hartan.

Zein da bekagaz aurrera eraman duzun erronka solidarioa?

Nire aitaren jaiolekua Palentziako Arconada de Campos herria da. Herri txiki horretatik Valladolideko Allende Mundiaren egoitzara dauden 90 bat kilometroak korrika edo oinez egingo ditut geratu barik. Uztailean 27an izango da, aldaketarik ezean. Egun hori aukeratu du-

gu ilargi bete dagoelako eta gauetz hasia delako asmoa. 20 bat ordu izango dira. Sekula ez dut hain distantzia handirik egin.

Korrika egitea gustuko duzu?

Bai, betidanik. Krosean aritu nintzen umetan. Gerora maratoi erdiak eta mendi lasterketak egin ditut. Hemendik probaren egunera arte hainbat lasterketa egingo ditut, prestaketa moduan. Proba batetik bestera distantziak handitzen joango naiz. Lasterketen egutegi bat prestatu dut erronkara sasoiari heltzeko. Hurrengo, martxoaren hasieran, Laudioko lasterketa da. 29 kilometro ditu. Ekaineko azkenak 67 kilometro izango ditu.

Zure erronkak ekaineko horrek baino 23 kilometro gehiago ditu. Arduratuta zaude?

Apur bat, bai. Amaitzea eta ondo aritzea gustatuko litzaidake. Egia esan, bekarik gabe ere baneukan erronka hau egiteko asmoa. Erronkaren aitzakiagaz Allende Mundi jendearen ahotan jarriko genuela uste genuen.

Erronka egiteko, noren laguntza izango duzu?

Herriko jendearena eta anaiarena. Aste batzuk barru bizikletan egingo dugu zirkuitu osoa, dena planifikatzeko.

Korrika egitea gustuko duzu, baina hain distantzia luzean edozer gertatu daiteke.

Bai, jakina. Orain arte nik egindako distantziarik luzeena 60 kilometro dira. Hiru Haundiak egiten saiatu nintzenezan izan zen. Prestatu barik joan nintzen eta ezin izan nuen amaitu. Lasterketa utzi aurreko 15 kilometroak akituta egin nituen.

Genero ikuspegia txertatuko dute Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean

ZORNOTZA • J.D.

Zornotzako Udalak genero ikuspegia txertatuko du Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean. Horretarako, herritarren parte-hartze prozesu bat jarriko du martxan. Zornotzarrek galdetegi bati erantzun ahal izango diote eta elkarrizketak ere egingo dizkiete, taldeka zein norbanakoei.

Inkestan beste hainbat gairen gainean ere galdetuko dute: segurtasuna, mugikortasuna, ekipamenduak, zerbitzuak eta irisgarritasuna, besteak beste.

Galdetegia bulego teknikoan, Zelaieta Zentroan eta Nafarroa Zentroan jaso daiteke

Galdetegia udaletxeko bulego teknikoan, Zelaieta Zentroan eta Nafarroa Zentroan eskuratu daiteke. Udaleko webgunearen bidez deskargatzeko aukera ere ahalbidetu dute. Inkestak aurkezteko azken eguna martxoaren 16a izango da, udaletxeko Bulego Teknikoan.

Ekimen horrez gainera, udalak herriko askotariko elkarteekin eta hainbat emakumerekin berba egingo du plan orokorra egituratzeko.

Txanda bakoitzean bi orduko lanuzteak egin dituzte Garbi galdetegiko langileek azken lan istripua salatzen

47 urteko langile batek besoa galdu du astelehenean martitzenerako goizaldean izandako istripuaren ondorioz



Lanuzteez gainera, langileek bi orduko elkarretaratzea egin zuten eguenean.

dikatuaren arabera, langilea azpikontrataturik zegoen, gainera. 150 langile ditu Garbi galdetegiak, eta guztien segurtasun baldintzak betetzeko eskatu du sindikatuak.

Bigarrena, bi hilabetean

LAB eta CCOO sindikatuek osatzen dute enpresa-batzordea, zazpi eta bi ordezkari gaz, hurrenez hurren. Biek ala biek enpresako lan baldintzak “prekarioak” direla salatu izan dute azken hilabeteetan. Izan ere, bi hilabeteren buruan langile batek izan duen bigarren istripu larria izan da hau. 2017ko abenduan

2017ko abenduan jazoriko beste istripu larrian, beste langile batek besoa galdu zuen

beste langile batek ere besoa galdu zuen istripuan. Horrez gainera, iazko udan sutea piztu zen enpresan bertan. Garbi galdetegiko ardura-dunek, osterara, ez dute adierazpenik egin gura izan.

ABADIÑO • A.M. / J.D.

Bi orduko lanuzteak egin zituzten Garbiko galdetegiko langileek eguenean txanda bakoitzean, martitzen goizaldean langile batek izandako istripu larria salatzen. Goizeko txandaren lanuzteagaz batera, bi orduko elkarretaratzea egin zuten langileek. “Jendea ezin da lanera hiltzera etorri”, salatu zuen Javi Cosio enpresa-komiteko arduradunak protestan. Horrez gainera, enpresaren jarrera salatu zuen, eta argi utzi gura izan zuten, “presaka ibiltzea ez dela sekula ona”. Zauritu den langileari elkartasuna eta babesa agertu gura izan dizkiote.

Istripua astelehenean martitzenerako goizaldean gertatu zen. Mantentze-lanetan zebilela, 47 urteko barakaldoztar batek besoa galdu zuen lan istripuan. LAB sin-

ZALDIBAR • M.O. / A.M.

Arrazoi pertsonalak argudiatuta, alkate kargua utziko du Arantza Baigorrik datorren astean. Legegintzalditik gelditzen den zatia zinegotzi legez egingo du, baina. 2019ko hauteskundeak bitartean, Eneritz Azpitarte izango da alkate berria. Azpitarte Ogasun arloko arduraduna izan da orain arte, eta legegintzaldia amaitu artean ere horrela jarraituko du. Astelehenerako deitu den ezohiko bilkuran gauzatuko da aldaketa. Bilkura 19:00etan egingo da, eta EH Bildutik dei egin diete zaldibartarrei bertara joateko, Baigorri esker ona adierazteko eta Azpitarteri ongi etorria egiteko.

Arantza Baigorri 2011tik izan da alkate. Kargua uzteko pena izan arren, momentu egokia zela uste du. "Ez naiz udaletik joango, legegintzaldiko proiektu garrantzi-

Baigorrik zinegotzi legez jarraituko du; Hirigintza batzordeko arduraduna izaten jarraituko du

Eneritz Azpitarte izango da Zaldibarko alkate berria, astelehenean Arantza Baigorriren erreleboa hartuta

Astelehenean egingo den ez-ohiko bilkuran utziko du kargua Baigorrik; arrazoi pertsonalak argudiatuta hartu du erabakia

tsuak martxan eta bide onean daudela ikusita; lan karga kendu eta lasaiago egoteko unea iritsi zait", azaldu du. Hirigintza batzordean jarraituko du.

Auzolana eta parte hartzea

Azpitartek, bestalde, proiektuari jarraipena emango diola aurreratu du. "Ilusioz hartzen dut erronka berri hau, eta orain arte egindako lanaren fruituak datozen hilabeteetan ikusiko dira", adierazi du. Baigorrik egindako lana eskertzeaz gainera, udal taldeak legegintzaldi hauetan eginiko lana goraiatu du zaldibartarrak. Auzolanaren eta parte hartzearen sustapena, haur eskola eraikitzea, oinezkoentzat gune berriak sortzea eta Plan Orokorra nabarmendu ditu.



EH Bilduko zinegotziak, astelehenean eskainitako prentsaurrekoan, erdian Baigorri eta Azpitarte daudela.

BERTSO AFARIA

MARTXOAK 9 OSTIRALA



Ikastolan
20:30ean

Maialen Lujanbio
Igor Elortza



Sarrerak (18€) salgai ikastolan eta Parra, Xara eta Txirri tabernetan.
16 urtetik beherakoak 10€



TXINTXIRRI
ELORRIOKO
IKASTOLA
BIDEA
ZABALTZEN



25 lagunek aurrekonturako iritzia eman dute Garain

Garaitarrek lehen aldiz eduki dute udal aurrekontuan ekarpenak egiteko aukera, asteen egindako batzarrean

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Eguaztenean 25 bat lagun elkartu ziren Garaiko udaletxean, udal aurrekontuari buruzko batzar zabalean. Lehen aldia da udalak prozesu horretan herritarrei ekarpena egiteko aukera eman diela, eta Gontzal Sarrigoitia alkatea pozik agertu da garaitarrek "erantzun ona" eman dutelako. "Iritzia emateko gogoz etorri zen jendea", azaldu du Sarrigoitiak.

Alkatearen esanetan, hainbat kezka atera ziren batzarrean. Esaterako, auzobideak eta zenbait

lekutako argiztapena hobetzearen alde agertu ziren herritarrak. Datorren astean udal batzordetik

Auzobideak eta zenbait lekutako argiztapena hobetzearen alde agertu ziren herritarrak

pasatuko dituzte ekarpenak, eta, ostean, osoko bilkuran aztertuko dute aurrekontua. Orduan emango dute guztiaren berri.

Erraketalarien gaineko erakusketa egingo dute

Datorren astelehenetik barikura egongo da ikusgai Kontzejzarrean

MALLABIA • J.D.

Datorren astean, astelehenetik barikura, erraketalarien gaineko erakusketa antolatuko du udalak Kontzejzarrean. Egunero 18:00etatik 20:00etara izango da ikusgai. Emakume erraketalariak

kirolari profesionalak izan ziren XX. mendeko lehen erdian. Hego Amerikan eta beste hainbat tokitan arrakasta handia lortu zuen kirola izan zen. Lorpen hori aintzatetsi eta historia gogoratu gura dute erakusketaren bidez.

Hitzaldia

Erraketalarien inguruko beste ekintza bi ere egingo dituzte. Martxoaren 1erako, datorren eguenerako, hitzaldi bat antolatu dute kirol honen inguruan. Berbaldia 19:00etan hasiko da Kontzejzarrean. Azkenik, martxoaren 4ko domeka eguerdian erraketalarien lagunarteko partidua antolatuko dituzte Mallabiko pilotalekuan.

Beharrizana duten familiei laguntzeko hitzarmena sinatu dute Elorrioko Udalak, Eroskik eta Kainaberak

Hilero, beharrizana duten hamalau bat familiari ematen diete laguntza Elorrion



Joan zen astean sinatu zuten hitzarmena.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko zenbait familiak dituzten beharrizanei erantzuteko asmoz, Elorrioko Udalak, Eroski Fundazioak eta Kainabera elkarteak hitzarmena sinatu zuten joan zen astean. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, duela hiru urte

lehen aldiz sinatu zuten hitzarmena indarrean egongo da aurrean ere.

Horrez gain, Eroski Fundazioak 6.000 euro bideratu ditu Elorrioko familia behartsuenei laguntzeko. Izan ere, "elkartasuna erakustea" euren helburuetako bat dela adierazi dute Fundazioko kideek.

Eroski Fundazioak 6.000 euro bideratu ditu Elorrioko familia behartsuenei laguntzeko

Elorrioko Udala arduratuko da laguntza bideratzeaz, eta Kainabera elkarteak janariaren banaketa egiteko konpromisoa hartu du.

Idoia Buruaga alkateak aipatu du Eroski Fundazioaren eta udalaren "borondate ona ezerezean" geldituko litzatekeela Kainabera elkarteak egiten duen "lan handia" egingo ez balu.

Juan Maria Lersundi Kainabera presidentek eskerrak eman zizkien udalari eta Eroskiri. "Eurei esker erosi eta banatuko ditugu behar diren janariak, eta krisiak udalerrian eragin dituen gorabeherak arinduko ditu horrek", esan du Lersundik.

Hitzarmen honi esker, beharrizana duten hamalau bat familiari ematen diete laguntza, hilero, Elorrion. "Gainera, familia bakoitzak dituen beharrizanak aztertzen ditu Kainaberak, eta, horren arabera, behar dituzten produktuak ematen dizkiete", esan du alkateak.

Bestale, prentsa oharrean adierazi dute Kainabera elkarteari lokal bat utzi diotela Galartzuri kalean, familiei banatu beharreko janari eta produktuak biltegitratzeko.

Juan Pedro Gallastegik utzitako zinegotzi kargua Agustin Fernandezek hartu du

ELORRIO • M.Z.

Herriaren Eskubideko Juan Pedro Gallastegi zinegotziak kargua utzi duela iragarri zuen martitzeneko osoko bilkuran. "Zinegotzi karguan egon naizen hiru urte hauetan asko ikasi dut, baina, egia esan, lan karga handia izan du", esan zuen Gallastegi.



JUAN PEDRO GALLASTEGI

Agustin Fernandezek hori dela eta, zinegotzi kargua Agustin Fernandezek hartu duela aitortu zuen. Bestade, "txarto" esanak barkatzeko eta "ondo" esanak gogoratzeko adierazi zuen nekazariak azken osoko bilkuran.

Agustin Fernandezek, berri, zinegotzi kargua hartzeko "gogotsu" dagoela aitortu zuen. Idoia Buruaga Elorrioko alkateak eta Joseba Mujika EAJren bozeramaileak eskerrak eman zizkioten Gallastegiri. "Eskerrik asko zintzoa, naturala eta zuzena izatearren", adierazi zioten.

Bidebarrietatik Masperra oinez igarotzeko bidea hobetuko dute

2018ko parte hartzeko aurrekontuetarako 40.000 euroko atala gorde du lurretako Udalak



30.000 euro erabiliko dituzte Bidebarrietatik Maspe kalerako irisgarritasun trabak konpontzeko.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bidebarrieta kaletik Masperra oinez igarotzeko bidea hobetzeko. Horretarako erabiliko dute, lurretan, herritarren erabakipean jarritako udal aurrekontuko diru atalaren zatirik handiena. 2018ko aurrekontu parte-hartzaileetarako 40.000 euro gorde ditu aurrean udalak, eta Bidebarrieta eta Maspereko lotunea egokitzeko 30.000 erabiliko dituzte. Euskaldun Berri parketik

Ebroko zubiraino argiztapena ere hobetuko dute, eta Santa Apolonia-rako eta Basetarako bidegorrietan jarlekuak jarriko dituzte. Iaz 25.000 euro izan zituzten herritarrek.

Euskaldun Berri parketik Ebroko zubiraino argi gehiago ipiniko dituzte, eta bidegorrian, jarlekuak

Aurrekontu parte-hartzaileetarako foroetan 20 proposamen egin dituzte bertaratutako herritarrek, eta horietako zazpi igaro dira bozketara. "Giro ezin hobean egin dira foroak, eta proposamenak hausnarketa baten ondorio izan dira; denon parte-hartzeagaz eta herriko kale, zerbitzu eta azpiegiturak hobetzeko asmoz", udal arduradunek azaldu dutenez. Aurrean gauzatu gura dituzte lanak.

Auzo batzarrak egingo dituzte aurrekontuak azaltzeko herritarrei

ATXONDO • M.Z.

Atxondon auzo batzarrak egingo dituzte 2018ko aurrekontuen berri emateko. David Cobos alkateak jakitera eman duenez, honen helburua aurrekontuen berri eman eta herritarrek beraien ekarpenak egitea izango da. Auzo batzar hauetan, besteak beste, udalak zenbat diru duen azalduko diete herritarrei, eta diru hori zertan erabiliko duten.

Lehenengo batzarra astelehenean egingo dute, otsailak

Astelehenean Apatan egingo dute batzarra; eguaztenean, berri, Axpen eta Arrazolan

26, 19:00etan, Atxondoko udaltxean. Eguaztenean, otsailak 28, Axpeko udaletxe zaharrean eta Arrazolako liburutegian egingo dituzte batzarrak. Axpen eta Arrazolan egingo dituztenak ere 19:00etan hasiko dira.

Berriztarrek egindako euskarazko lanak bultzatzeko diru-laguntzak, prest

BERRIZ • M.Z.

Berrizko Udalak diru-laguntzak ematen jarraituko du, herrian euskara sustatu eta herritarren euskarazko kultur ekoizpenei bultzada bat emateko asmoz. Udaletik jakitera eman dutenez, beste urte ba-

18 urtetik gorako berriztarrek apirilaren 19ra arte edukiko dute aukera eskaria egiteko

tzuetan lez, aurrean ere 2.000 euroko diru-laguntza emango dute. Apirilaren 19ra arte egongo da eskaria egiteko aukera, Berrizko Udaleko Erregistro Nagusian. Adierazi dutenez, 18 urtetik gorako berriztarrek dira diru-laguntza hauek jaso ditzaketanak.

Laguntza hau jasotzeko, herritarrek sortutako kultur sortuntzak herrian eragitea eta berriztarren artean euskararen erabilera sustatzea ezinbestekoak izango dira.



'Eraz' aldizkaria.

Hareek denporak!

BERTSO AFARIAK, BERBAROREN ESKUTIK

25 urte atzera egin, eta hara zelako irudia topatu dugun. Eraz aldizkariak argitaratutako argazkian, mahaiaren bueltan zenbait bertsolari eta bertsozale, tartean *patillarik* bako Unai Iturriaga gazte bat ere bai. Izan ere, Iturriaga, Igor Elortza, Beñat Gaztelu-urrutia eta beste zenbait bertsolari oso gaztetan hasi ziren plazarik plaza kantuan.

Durangoko Berbaro euskara elkarteak 1993an antolatutako

bertso afari bateko irudia da argazkikoa. Afari horiek hiru hilerik behin egiten zituzten, euskararen erabilera sustatzeko helburuz. Bertsolari bi Durangaldeko gazteak izaten ziren, eta beste bi kanpotik etorritako *konsagratuak*. 80 bat lagunentzako afaria prestatzen zuten Kuru-tziaga ikastolako jantokian, eta aparteko giroa sortzen ei zen, sasoiko kronikak kontatzen duenez. **M.O.**

Sei hankako mahaia

Julian
Rios Santiago
SQ2D



'Astelehenak eguzkipean'

Hauek ez dira Fernando León Aranoaren *Astelehenak eguzkipean*, astelehenak euripean baizik. Beste behin ere, errealitateak erakutsi digu fikzioa gainditu duela, eta jubilatuek kalera irten behar izan dute beraien eskubideak eta atzetik gazozenonak defendatzeko.

Madrilen gobernatzen dutenek, gobernatzen laguntzen dietenek eta hemendik aurrekontuak onartzen laguntzen dietenek pentsioak eguneratzeko sistema oparitu ziguten 2013an, helburu argi honekin: pentsioetan gastu gutxiago izatea.

Hori lortzeko, sistema aldatu dute, pentsioak bizitzaren neurrian igo ez daitezten. 2018an %0,25 igo dira pentsioak, baina argia %10 igo da, KPIa %1,2, eta gasa %6,6. Eta gasaren fakturak Castor plataformaren 96 milioi euroko indemnitzazioa izango du barne, Auzitegi Konstituzionalak ilegaltzat jo bazuen ere.

Hori gutxi ez, eta M. Rajoyk aholku bat eman digu: "Aurreztu pentsio-plan eta pentsio-funtsetan". Hau da, gero eta baxuagoak diren soldaten parte bat pentsio-plan pribatuetan inbertitzeko diosku, berriro ere bankuen mesederako.

Egoera horri egin behar diote aurre bizi osoa lanean eman duten gizon eta emakumeek, lan eskubideak defendatzen borrokatu ziren pertsonak, pentsio duin bat lortzeko soldataren parte bat kotizatzen egon direnek, edo kotizatu ezin izan dutenek euren lana ez delako errekonozitua izan.

Nahikoa jo digute adarra gobernuak eta haien laguntzailerek. Pentsio duinak eskubide bat dira, eta ez karitatea.

*Erredakzioan itzulia

Durangaldea asteen

Enplegu publikoaren defentsan 4 orduko lanuztea egingo dute Durangoko Udalean

Durango I Otsailaren 28an 4 orduko lanuztea egingo dute Durangoko Udalean. ELA eta LAB sindikatuek deitutako lanuztearen helburua enplegu publikoa defendatzea, pribatizazioen aurka egitea eta zerbitzu publikoak indartzea izango da. Bestalde, datorren eguaztenean 11:00etan Durangoko udaletxe aurrean egingo duten elkarretaratzegaz bat egiteko deia egin diete herritarrei.

Katalamixoneko kideek udaleku itxiak antolatu dituzte Ollogoienen

Abadiño I Uztailaren 22tik abuztuaren 1era udaleku itxiak antolatu ditu Katalamixon aisialdi elkarteak Ollogoienen. Aisialdi elkarteko kideek jakitera eman dutenez, udaleku hauetan Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara arteko gazteek eman ahal izango dute izena. Izen-ematea martxoaren 2an hasiko da eta martxoaren 16an bukatuko da.

Hamar urteren ostean, Aritz Arginzoniz preso elorriarra gaur geldituko da libre

Elorrio I Gaur aske geldituko da Aritz Arginzoniz preso, hamar urteko kartzela-zigorra bete ostean. Espainiako Polizia Nazionalak 2008an atxilotu zuen Arginzoniz, eta, orduz geroztik, Espainiako hainbat espetxetan egon da. Joan zen abenduan, berriz, Parisen epaitu zuten. Epaileak konfusa delakoa aplikatu zion Arginzonizi, eta Espainian bete duen kondena handiagoa denez, Frantziako deuseztatu zuen. Beraz, gaur aske geldituko da elorriarra.



Gobernuak ezarritako %0,25eko igoeraren aurka mobilizatzen dabilza pentsiodunak

Durangaldea I Durangaldeko pentsiodunak mobilizatzen dabilza Espainiako Gobernuak ezarritako %0,25eko igoeraren aurka. Pentsiodunek azken asteetan behin eta berriz salatu dute igoera honegaz erosahalmena galtzen ari direla eta hori berreskuratzea ezinbestekoa dela.

Bestalde, beraien desadostasuna adierazteko, eskualdeko pentsiodunek kontzentrazioak egiten dituzte astero Zornotzan, Durangon eta Berrizen, besteak beste. Atzo, berriz, Bilbon egindako manifestazioagaz bat egin zuten. Horrez gain, martxoaren 2rako EH Bilduk pentsioei buruzko hitzaldia antolatu du Jesuitak Ikastetxean.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz #salduenak
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
liburudenda

JENIS JOPLIN
Uzue Alberdi
Susana

BIHOTZ HANDIEGIA
Eider Rodriguez
Susana

HEREJEEN ALABA
Ander Berrojalbiz & Joseba Sarriena
Pamiela

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Arrike
Liburudenda
Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



Deshakesperazioa

ANTZERKIA

ZORNOTZA :: Otsailak 23

Karrika antzerki taldeak "Deshakesperazioa" obra antzeztuko du Zornotza aretoan. Berriki zendu den Jose Martin Urrutia Txotxek idatzita, Shakespea-
reren testuetan oinarritzen da antzezlan.

Otsailaren 23an

ELORRIO azoka
'Aukeren azoka', egun osoz, plazan.

DURANGO deialdia
'Gazteok etxe hutsen bila' argazkia eta postontzietako banaketa, 17:00etan, Andra Marian.

ZALDIBAR ipuin kontaketa
'The far west' ipuinaren kontakizuna, ingelesez, 17:30ean, udal liburutegian.

BERRIZ antzerkia
'Mami Lebrun' antzezlan, 20:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO antzerkia
'Masacre. Una historia del capitalismo español' Barrio taldearen antzezlan, 20:30ean, Arriolan.

ELORRIO irteera
'Astun-Candanchu', eski alpinoa, iraupen eskia eta mendi ibilbidea, asteburu osoz.

Otsailaren 24an

ELORRIO antzerkia
'Akadantz' X. Kale dantzen lehiaketa, 12:00etan, 16:00etan eta 19:00etan, Arriolan.

DURANGO antzerkia
'Melodías mágicas' Toti Martínez de Lezea eta soinuaren bidaia, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

DURANGO musika
'40 Minutu Rock' elkartasun jaialdia, Tximeleta, 10:45ean; **Revolta Permanent**, 12:35ean, **Tremenda Jauria**, 13:40an; **Sermond's**, 14:50ean, **Estricalla**, 15:55ean, **Des-Kontrol**, 17:00etan, **Gatibu**, 18:20an, **Su Ta Gar**, 20:05ean, **Glaukoma**, 21:40an, **Zopilotes Txirriaos**, 23:00etan, **Las Tea Party+Ane Guria+La Basu+Mad Muasel**, 00:15ean, Landako Gunean.

DURANGO musika
'40 Minutu Rock' elkartasun jaialdiaren ostean, **Zigor DZ**, 02:00etan, Plateruenean.



Otsailaren 25ean

ELORRIO martxa
XIX. mendi bizikleta martxa (hiru ibilbide egongo dira), 10:00etan, plazatik.

Otsailaren 27an

ATXONDO saioa
'Yoga-margoketa' saioa umeekin (4-10 urte bitartekoak), 16:30etik 18:00etara, eskolan.



Ikasturteko 2. jam saioa antolatu dute Bartolome Ertzillako lagunek. Durango Jazz Connection laukoteak zabalduko du saioa; taldea Mikel Nuñezek, Josu Gonzalezek, Iñaki Jaiok eta Lolo Garciak osatzen dute

'Jam saioa'

DURANGO :: Otsailak 23

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Otsailaren 28an

DURANGO berbaldia
'Testimonio en el mundo de la enfermedad' hitzaldia Egoitz Zabalagaz, 20:00etan, Jesuitetako Arrupe aretoan.

DURANGO zineforuma
'Zine forum politikoa. Geopolitikaren garrantzia estatu berrien jaiotzan' Asier Blas eta Josu Martinezegaz. Emir Kusturicaren *Underground* filma aurrez ikustea gomendatzen da, 19:30ean, Plateruenean.

Otsailaren 15etik 28ra

BERRIZ emanaldia
'Aintza (Glory)' film-dokumentala jatorrizko hizkuntzan, euskarazko azpidatziekin, 19:30ean, Kultur Etxean.

Martxoaren 2an

DURANGO berbaldia
'¿Qué está pasando con las pensiones?' hitzaldia Miren Etxezarreta katedradunaren eskutik, 19:00etan, Jesuitak ikastetxeko Arrupe aretoan.

DURANGO musika
Anariren eta Liberen kontzertua, 22:00etan, Plateruenean.

BERRIZ musika
Ikarass eta La Casa Fantom taldeen kontzertua, 22:00etan, gaztetxean.

Martxoaren 3an

DURANGO deialdia
'Biribilketa' Durangaldeko neska gazteen topaketa feminista, Sorginolan.

Kike Amonarriz Zornotzan

HITZALDIA | Otsailaren 28an, 19:00etan, Euskaraldia ekimenaren berri emango du Kike Amonarrizek Zornotzan. Ekitaldiaren amaieran ekimen horretan parte hartzeko interesa dutenentzako bideak irekiko dituzte. Lehenengo helburua 11 Egun Euskaraz kanpaina antolatzea izango da, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Hara heldu arteko bidea ahalik eta herri-atar gehienek eskutik egin gu-

ra dute. 11 Egun Euskaraz ekimenak euskaraz hitz egiten eta ulertzen duten herritarren arteko hartu-emanetan hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu.

Zornotzak 18.700 biztanle ditu guztira, eta horietatik %52,9k ondo dakite euskaraz eta %22,7k ulertzeko gaitasuna dute. Azken neurketaren arabera, kalean entzuten diren elkarrizketen %23 dira euskaraz.



Antzerkia iurretarren artean sustatzeko helburuz

ANTZERKIA | Iurretarren artean antzerkizatasuna sustatzeko asmoz jaio zen Antzerkia Aretoan ekimena, duela sei urte. Anderebide elkarteagaz batera antolatzen du egitasmoa udalak, Ibarretxe kultur etxeko programazioa osatzeko. Iurretarrei antzerkia hurbiltzeaz gainera, euskarazko antzerkigintza sustatzea bilatzen du ekimenak. Antzezlana doakoak dira, gainera, zaletasunera hurbiltzea errazteko. Hala ere, deialdia egin dute antolatzaileek gonbidapenak aurretik eskatzeko. Izan ere, Antzerkia Aretoan ekimenak harrera oso ona izan ohi du eta kultur etxeko aretoa bete egiten da. 8.500 euroko aurrekontua du ekimenak.

Martxoaren 2an

“Kalean otso, etxean uso” antzezlana Patata Tropikalaren eskutik. 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Martxoaren 16an

“Monolokos” saioa Susana Soletoren eta Javier Merinoren eskutik, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Apirilaren 13an

“Así vamos muy mal” antzezlana. 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Martxoaren 4an

DURANGO antzerkia ‘Lyceum club’ antzezlana, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

Otsailaren 27tik martxoaren 6ra

DURANGO deialdia Berbarok antolatutako 2018ko udalekuetan izena emateko epea hasi dute. Bulegoan soilik egin ahal da.

Otsailaren 7tik maiatzaren 30era

BERRIZ ikastaroa Emakumeen jabekuntza eskolaren baitan, Mindfulness ikastaroa, 12 urtetik gorako emakume berriztarrentzat, eguaztenetan 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

Otsailaren 26tik martxoaren 2ra

MALLABIA erakusketa Erraketisten inguruko erakusketa, 18:00etatik 20:00etara, Kontzejzarrean.

Otsailean eta martxoan

DURANGO erakusketa Alaitz Muroren ‘Seafun’ erakusketa, Artakan.

Otsailaren 2tik 28ra

ZORNOTZA erakusketa Jose Enrike Urrutia Kapearen ‘Argiaren paisaiak’ erakusketa, Zelaieta Zentroan.

Otsailaren 9tik martxoaren 9ra



Jose Enrike Urrutia Kapearen “Islak” erakusketa ikusgai dago Zornotzako Zelaieta Zentroan.

ABADIÑO ikastaroa Autodefentsa feminista, barikuetan, 17:00-20:00 bitartean, Txanporta kultur etxean.

Martxoaren 2tik martxoaren 23ra

BERRIZ erakusketa Leticia Gaspar, Kultur Etxean.

Martxoaren 5etik martxoaren 13ra

BERRIZ ikastaroa ‘Zure Android gailua erabiltzen hasi’, 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

Martxoaren 14an eta 15ean

BERRIZ ikastaroa ‘Smartphonen berehalako mezularitza’, 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

Martxoaren 16an

BERRIZ ikastaroa ‘Musika aplikazioak zure gailurako’, 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

Otsaileko agenda

“IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA”

Bularretik mintzora irakurketa kluba
17:00 3-5 urte
18:00 6-7 urte
Helduentzako Ipuin Kontalaria
19:00 Jhon Ardilla (Colombia) “De alla”

23

“IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA”

18:30 Ingeleseko irakurketa kluba
“DILEXIA: Irakurketa errazeko klubak”
17:00 L.H. 3-4 mailak (8-10 urte)
18:00 L.H. 5-6 mailak (11-12 urte)

27

“IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA”

10:00 - 11:00 Helduentzako XL klub Azalera ipuinak
16:45 - 17:30 0-18 hilabete
17:30-18:15 18-36 hilabete
18:30 Irakur lagunak

28

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

Oihaneko Kuadrila
barikua 23: 18:15
domeka 25: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Yo, Tonya**
barikua 23: 19:30/22:00
zapatua 24: 19:30/22:30
domeka 25: 19:15/21:30
astelehena 26: 18:30/21:00
martitzena 27: 20:00
eguztzena 28: 20:00

• **La enfermedad del domingo**
barikua 23: 19:30/22:00
zapatua 24: 19:30/22:30
domeka 25: 19:15/21:30
astelehena 26: 18:30/21:00
martitzena 27: 20:00
eguztzena 28: 20:00

• **La forma del agua**
barikua 23: 19:30
zapatua 24: 17:00/22:30
domeka 25: 16:30/20:30
astelehena 26: 21:00
martitzena 27: 20:00

• **Black Panther**
barikua 23: 22:00
zapatua 24: 16:45
domeka 25: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Molly's game**
zapatua 24: 22:00
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:00

• **Gru 3 Mi villano favorito**
domeka 25: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **50 sombras liberadas**
zapatua 24: 19:30/22:00
domeka 25: 20:00
astelehena 26: 20:15

“Sortzea oso prozesu intimoa da niretzat, eta bakarrik nagoela egiten dut”

Eason lana kaleratu du otsailean Izaro Andresek; musikari mallabitarraren estudioko bigarren lan luzea da honakoa



Izaro Andres Zelaieta
Musikaria

Mallabia | 1993

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

OM lanagaz kritikaren eta publikoaren txaloak jaso ostean, buru-belarri aritu dira lanean honen jarraipena den Eason diskoan Izaro Andres, Iker Lauroba, Julen Barandiaran eta Oriol Flores musikariak.

“**Ez dut kontzienteki egiten. Hizkuntzak berak aukeratzen du kanta, eta nik libreki uzten diot izaten**”

Nolako harrera izaten ari da Eason?

Izugarria. Mugikorrek eztanda egingo dit. Sare sozialetatik maitasun handia jasotzen ari naiz, eta, kontatu didatenagatik, denda batzuetan larunbat goizean bertan agortu zen *Eason*. Zoragarria! **Zaleak gogoz egon dira zure lan berriari itxaroten. Presioa igarri duzu?** Bai. Presioak berak bi aurpegi ditu. Bat positiboa: irrika eta gogo;

eta beste bat negatiboa: espektatibak eta horietara ez heltzearen porrot sentazioa. Orekari eusteko ezinbestekoa da konturatzea bietako bat bera ere ez dela hain garrantzitsua, eta lana ahalik eta ondoen egin behar duzula. Besterik ez.

Urte bi igaro dira OM eta Eason lanen artean. Nola hazi da Izaro denbora honetan?

Norabide askotan. Oro har, heldu egin da. Musikaz haratagoko lan mundu korapilatsua ulertzen hasi da, kultura egitetik bizi direnen lan baldintza ez duinak ikusi ditu eta profesionalizaziorako borrokan ari da, krisi existentzial bat pasatu du, ahotsa lantzen hasi da, bizitza berregituratzen bere lanbide berria ahalik eta duinen bizitzeko...

Doinu ezberdinekin saiatu zara lan berri honetan, blues, runba... Gauza berriak probatzeko gogoz ibili zara?

Gauza berriak probatzeko gogoa beti. Egia esan, bluesa zaharragoa dut *Om* baino, baina ez nintzen gai nik neuk sortzeko; beraz, pendiente neukan zerbait izan da *Devil*.

Bestalde, *La Felicidad* berritasunaren askapena izan da. Primeran pasatu nuen sortzen, eta oso ondo pasatu dut janzten eta grabatzen.

Nola sortzen dituzu abestiak, zure kabuz ala taldekideekin?

Nire kabuz. Gero, behin eginda daudenean, musikariei erakusten dizkiet, eta denon artean janzten ditugu. Baina sortzea oso prozesu intimoa da niretzat, eta bakarrik egiten dut.

Berbetan euskara, gaztelania eta ingelesa erabili dituzu. Zeren arabera egiten duzu aukeraketa?

Ez dut kontzienteki egiten. Hizkuntzak berak aukeratzen du

“**Urtebete daramagu kantuek lantzen eta entseatzeko, eta gogo itzela dugu egiten gabiltzana erakusteko**”

kanta, eta nik libreki uzten diot izaten.

‘Eason’, urteetan aurreztearen fruitua

Zestoan grabatu du Izarok bigarren lan hau, Eñaut Gaztañagaz (Grises)

Jauzi nabarmena egin du Izaro Andresek lehenbiziko lan luzetik bigarren honetara. *OM*-en kasuan, *crowdfunding* bidez finantzatu zuen diskoa;

bigarren hau, berriz, urteotan irabazitakoagaz ordaindu ahal izan du. Denetik egin du mallabitarrak urteotan: hitzaldiak eman eta eskoletara joan, besteak beste. “Lan txikiakin lortutako diruagaz eta kontzertuek ematen diguten etekin apurragaz ordaindu dut *Eason*; asko lagundu didate *OM*-en salmentek, eta, hala ere, ozta-ozta iritsi zait!” azaldu du artistak. Estudioko lana gogorra dela aitortu du musikariak; gustura aritu da, halere. “Kontzertuak eskertzeagoak dira, baina biak egiten jakin behar da. *Eason* honetan, Xabier Zeberio eta

Zertan inspiratzen zara hitzak edo musika bera idazteko?

Kasuaren arabera. Zerbaitek edo norbaitek sorrarazi behar dit zerbait. Izan daiteke eguzki izpi bat, esaldi bat, begirada bat, egoera bat... Normalean egoerak izatzen dira nire musa, edo egoeren atzean dauden pertsonak.

“**[Inspiratzerakoan] zerbaitek sorrarazi behar dit zerbait; izan daiteke eguzki izpi bat, egoera bat...**”

Donostiagaz harreman estua duzula nabari da lan honetan. Zelan eragin ditu han bizitzaak?

Oso eroso nago Donostian. Esku-zabalki hartu nau hiriak, itsasoa bertan dela nabari da haizean, jende zoragarria ezagutu dut (batzuk donostiarrak, beste batzuk donostiartuak) eta musikaz jantzi nau. Agian dena izango zen kasualitatea, baina oso kasualitate ederra izan da. Ni neu sentitzen naiz hemen. Ez dakit, maitatua sentitzen naiz.

Urduri zuzenekoetarako?

Oso gogotsu, baina oso urduri. Urtebete daramagu kantuek lantzen eta entseatzeko, eta gogo itzela dugu egiten gabiltzana erakusteko. Uste dut esperientzia polita izango dela, bai guretzat, bai ikusleentzat. Maitasun eta mimo handiz ari gara kontzertuak prestatzen.

Mexikora ere bazoaz.

Azken urte bi hauetan jende asko ezagutu dut, tartean Sergio Cruzado. Beragaz nabil bira honetako kontzertuak lotzen eta berak proposatu zidan Mexikon lauzpabost kontzertuko biratxo bat egitea; baiezkoa eman genion. Ea ez den ezer aldrebesten; oso emozionatuta gaude Mexikokoa dela-eta.



Jesus Bustosek ere parte hartu dute. Kontzertuetan Garazi Esnaolak lagunduko die Izaro Andresi eta musikariei.

Sorkuntzako jakingaiari buruzko hausnarketa, zinearen bitartez

Emir Kusturicaren 'Underground' pelikulan oinarrituko da otsailaren 28ko solasaldia



Emir Kusturicaren Underground pelikularen irudi bat.

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Hainbat ziklo burutu dituzte Plateruenean urteotan, eta askotariko gaiak jorratu dira bertan. Datorren eguaztenean, hilak 28, hasiko den zikloan, mundu akademikoko eta sortzaileen ikuspuntuko jakintza-gaiak batu gura izan dituzte kulturguneko kideek. Zinearen bidez

egingo da ideia truke hori. Horretarako, hiru saio antolatu dituzte datozen hiru asteetarako. Egun bakoitzean gai bat jorratuko dute, zinean aditua den lagun baten eta zine forumerako planteatzen den gaian aditua den beste baten eskutik. Pelikulen luzera dela-eta, aurretik pelikula ikusteko gomendioa

Geopolitikak estatu berrien sorreran duen garrantziaz hausnartuko dute lehenbiziko saioan

egin dute Plateruenean. Hala ere, pelikulen eszena esanguratsuenak laburtuko dituen bideoa erakutsiko dute saioan. Horrez gainera, QR kodeak erantsi dituzte ekimeneko karteletan, pelikulak sarean ikusi ahal izateko.

Eguaztenean, lehenbizikoa

Zikloa eguaztenean hasiko da Emir Kusturika zinegilearen *Underground* pelikulagaz (1995). Bertan, Asier Blasek eta Josu Martinezek hartuko dute parte hizlari moduan. Blas EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakaslea da. Martinez, oster, EHUko ikerlaria da, zinegilea izateaz gainera. Geopolitikak estatu berrien sorreran duen garrantziaz buruz solastuko dira. Kusturica egile serbiarraren pelikula hau Cannes Zinemaldian estreinatu zen, 1995ean, eta Urrezko Palma irabazi zuen bertan. Bigarren Mundu Gerran, Belgradon, kokatzen da istorioa. Marko Dren (Miki Manojlovic) poetak Petar Popara (Lazar Ristovski) eta honen familia soto batean ezkutatu ditu, naziengandik ihesi dabilta-eta. Gerra amaitu ostean ere, bertan mantenduko ditu Drennek, gerrak jarraitzen duelakoan. Hogei urtez horrela eduki ostean, Poparak gordelekuetik irtetea lortuko du, eta errealtatea bestelakoa dela topatuko du. Serbiar eta bosniarren arteko gudak eztanda egin du. "Kusturicak Jugoslaviaren XX. mendeko historia kritikoa marrazteko erabiltzen dituen metafora eta sinbolo bisual argigarriak hartuko ditut hizpide", azaldu du Martinezek. Blas, oster, askapen prozesue-

tan kanpoko esku-hartzeek duten garrantziaz jardungo da. "Euskal Herrian ohitura dugu estaturik gabeko herrialdeen aldarrikapen guztiak gure iragazkietatik pasatu eta gure eskema mentaletatik irakurtzeko. Errealitatea, ordea, konplexuagoa da. Jugoslaviako adibidea baliatuz, munduko potentzien esku-hartzeek duten garrantzia azaltzen saiatuko naiz", azaldu du irakasleak.

Asier Blasek eta Josu Martinezek gidatuko dute eguazteneko zineforum saioa

'Yo Daniel Blake' eta 'La Batalla de Argel' izango dira beste bi saioetako pelikulak

Hiru saio

Beste bi saioetako gonbidatuak ez dira atzean geratzen. Martxoaren 7ko saioa krisi ekonomikoaren testuinguruan ongizate estatuaren hustuketari buruzkoa izango da. Helena Franco EHUko irakaslea eta Xabier Landabidea Deustuko Unibertsitateko irakaslea jardungo dira Ken Loachen *Yo Daniel Blake* (2016) pelikulari buruz. *La Batalla de Argel* (Gillo Pontecorvo, 1965) pelikula aukeratu dute Iratxe Fresneda eta Mario Zubiaga EHUko irakasleek martxoaren 14ko saiorako. *Herrien askapena, atzo eta gaur* deitzen da beraien saioa. Saio guztiak 19:30ean hasiko dira.

Kapitalismoaren mila aurpegiak 'Masacre'-n, Alberto San Juan eta Marta Calvóren eskutik

Elorrioko Arriolan antzeztuko dute, gaur, 20:30ean, 'Masacre. Una Historia del Capitalismo Español', Madrilgo Teatro del Barrio konpainia entzutetsuaren antzezlan berria



Marta Calvó eta Alberto San Juan dira antzezleak.

ANTZERKIA • A.M.

Masacre-k erdi mailako klaseko bikote espainiar bat jartzen du ohol-tzaren erdian. Berrogeita hamar urte inguru dituzte biek, heterosexualak dira, bi seme-alaba dituzte

Botín, Aznar, Suarez... hainbat pertsonaiaren azalean sartzen dira protagonistak

eta urbanizazio batean bizi dira. Normala guztia, hasiera batean behintzat. Krisi ekonomikoaren eraginez, baina, azkeneko hiru markadetan sortu dituzten ohitura txikiak, kontsumo ohiturak eta xedeak desagertu egin dira. Ordu-

ra arteko bizimodua kinka larrian izango dute, izan ere, erdi mailako klasea delakoa atzean uztea oso kontzeptu zaila da. Abiapuntu horregaz, Alberto San Juan eta Marta Calvó zorigaiztoko bikote horren azalean sartuko dira. Bikotearen eta beste hamaika pertsonaiaren paperean ere bai. Hain zuzen ere, antzerkia 80 minutuko elkarrizketa bat da, bi protagonisten artekoa. Gainera, ez dute ez jantzirik ez eszenatokirik aldatzen obra osoan. Frankismoan, trantsizioan eta honen ostean botere ekonomikoa zuzendu duten pertsonaien azalean sartuko dira bi aktoreak; horrela, Calvó eta San Juan Emilio Botín, Esther Koplowitz, Franco, Adolfo Suarez, Aznar eta Ibex-35 bera izango dira, besteak beste, Arriolako ohol-tza ginean.

Antzerki konpainiaren arabera, Naomi Klein kazetariaren *The Shock Doctrine* liburua izan du iturri Alberto San Juanek obra idazteko.

Auzoko konpainia

Barrio proiektuaren jarduna guztiz

politikoa dela babesten dute bertako kideek. Aldaketa politikoa herri mugimenduagaz eta antzerkiaren bidez gauzatuko dela uste dute gainera. Politika egiteko dituzten baliabideak, oster, kultura eta jaia direla defendatzen dute. "Sistemak

"Umorerik gabeko iraultza kondenatuta dago eta aspergarria litzateke, gainera"

Obra idazteko, Naomi Klein kazetariaren 'The Shock Doctrine' liburua izan du iturri San Juanek

miseriagaz eta depresioagaz kolpatzen gaitu. Guk poztasunagaz erantzun gura diogu, edertasunagaz. Umorerik gabeko iraultza kondenatuta dago, eta aspergarria litzateke, gainera", adierazi dute. 20:30ean hasiko da antzezlan Arriolan.

Arriola kaleko dantzen erakusleho bilakatuko da, hamargarrenez

Hiru saioetarako txartelak agortuta daude; 54 talde borrokatuko dira Break On Stagerako txartela lortzeko



lazko lehiaketako irudia.

DANTZA • ARITZ MALDONADO

Hamargarrenez egingo da, Elorrioren, Akadantz kale dantzen lehiaketa. Arriola aretoan jokatu da, hiru saiotan, eta sarrera guztiak salduta daudela adierazi dute anto-

latzaileek. Guztira, 54 taldek parte hartuko dute; guztiak, Euskal Herrikoak. "Bilbotik, Donostiatik, Iruñetik eta Gasteiztik datoz gehienak, baina, tartean, eskualdeko ordezkarri batzuk ere egingo

dira", azaldu du Aitor Iriarte *Lobok*. Funky, house, hip hop, break dance... hiri-dantzen estilo guztiak dute lekua Arriolan egingo den lehiaketan. Gazteei eta amateur mailako dantzari zuzenduta dago, batez ere. Talde lana bultzatu gura dute parte-hartzaileen artean; 2-6 gaztek osatu ohi dituzte taldeak. Horrez gainera, bestelako irizpideak hartuko dituzte kontuan baloraziorako. "Originaltasuna, sormena, koreografiak burutzeko trebezia eta musika sinkronia ere hartzen dira kontuan lehiaketarako", azaldu du *Lobok*.

Hiri-dantzen lehiaketa izateaz gainera, Akadantz erakusleho bat ere bada. "Diziplina hauek entsegu ordu asko eskatzen dute; sarri, modu autodidaktan. Beraz, hiri-dantzaerakiko zaletasun bera duten gazte askorentzako topalekua da", adierazi du.

Hiru saio egingo dira zapatuan: 13:00etan, 16:00etan eta 19:00etan. Sarrera guztiak salduta daude, eta, beraz, giroa pil-pilean egingo da.

Break On Stagera bidean

Elorrioko Akadantz jaialdia Break On Stage 2018rako kanporaketa ere bada. Guztira, lau parte-hartzailek lortuko dute jaialdi entzutetsuan parte hartzeko txartela. Maila *Absolutuko* bik eta *Kids* mailako beste bik. Aretxabaletan izango da beste

kanporaketa, martxoaren 3an. Kale kulturaren erreferentziatzko jaialdia da Break On Stage. Aurten, 19. edizioa izango du, eta lehenbizikoz Derion (Bizkaia) egingo da,

**Hiru saio egingo dira
zapatuan: 13:00etan,
16:00etan eta 19:00etan;
Arriola beteta egingo da**

**Aurten, Deriora
lekualdatuko dute Break
On Stage; apirilaren
21ean izango da**

apirilaren 21ean. Azkeneko bost urteetan Bilboko Arenan izan da, eta goia jo duela iritzita, jaialdia lekualdatzea erabaki dute antolatzaileek. "Jaialdia birsortzeko erronka berria da", diote antolatzaileek. "Kaleko artistak dira jaialdiko benetako protagonistak, eta gure asmoa kalean sortzen diren diziplinak babestea da", adierazi dute. Derioko kiroldegiak zenbait azpiegitura eskaintzen ditu antolatzaileen berbetan, kale dantza, musika eta kaleko eta muturreko kirol eskaintza handitzeko. Break On Stage Elorrioren jaio zen, eta egun Europako jaialdi erreferentea da.

Jon Pertika euskal dantzen bultzatzailea hil da

lazko ekainean omenaldi hunkigarria egin zioten, Durangaldeko dantzak ezagutarazten egindako lanagatik



Pertika, Teila Saria jaso zuenean, 2017ko ekainean.

DANTZA • J.G./A.M.

Astelehenean, otsailak 19, zendu zen Jon Pertika folklore sustatzailer bilbotarra, 80 urte gaz. 2017ko ekainean Teila Saria eman zion Gerediaga elkarteak eskualdeko dantzak ezagutarazten egindako lan eskergaren errekonozimendu legez. Gerediagako baselizan omenaldi hunkigarria egin zioten, gainera; bertan, zazpi urteko ilobak banangoa dantzatu zion aititari.

1937an jaiota, bizitza osoa eman du dantzari lotuta Pertikak. Bilboko Dindirri dantza taldean hasi zen dantzan (bere aita izan zen sortzaileetako bat; Bilboko lehenbiziko taldeetako bat zen), eta 1968an Basurtuko Beti Jai Alai dantza taldea sortu zuen. Talde hau dinamizatzen igaro ditu az-

ken 50 urteak. Beti Jai Alai dantza taldeak Euskal Herriko zein Nazioarteko folklore jaialdi askotan hartu du parte, eta, modu horretara, Durangaldeko folklorea ere ezagutzera ematen lagundu du.

**Gerediagako baselizan
jaso zuen omenaldia;
bertan, 7 urteko ilobak
banangoa dantzatu zion**

Bi urterik behin ematen du Gerediagak Teila Saria. Durangaldetik kanpoko herritarrei egiten zaien omenaldia da, eskualdeagaz izan duten lotura aitortu eta eskualdearen alde eginiko lana eskertzeko.

Geure Durangaldea

Fernan Ruiz Larringan Euskara teknikaria



Zapalduaren sindromea

Garizumako haize bustiaren babesean, lagun zaharrarekin elkartu naiz. Begi bistan, harrizko Astarloa amantala jantzita eta erratza eskuan ageri zaigu. Kafeari eragiten dion bitartean, gura barik, garai ilunen flasha etorri zaio, xiringa, koilara uger eta hauts zurixkarekin korapilatuta ibili zen sasoi latz hura. Orain laborantzan ari da, esku larrak salatari. Euriteak, luitziak eta egurtsa etsai, tartetxoa hartu eta bisitan etorri da bere ortu txikiak jarduteko, handik ateratzen baititu bihotz taupadei eusteko elikagaiak. Patxadaz hasi gara berbetan, eta, halako batean, "azpian dagoena interesatzen zait" bota du, "lur azpian dagoena, mendean hartutakoak, baztertutak eta haien begiradak, zapalduak direlako, lurpean sartzen ditugulako". Lur-azalean ageri dena, itsu bilakatzen gaituen distira ez zaio interesatzen, gordea dugun horretan arakatzea gogobetetzen du. Harreman zintzoen basamortua esaten dio hiriko bizimoduari; urte asko pasatu baititu, han, iraganak utzitako hondar trinkoak goldatu, irauli eta saneatzeko intentzioarekin. Lanabesak, ordea, ez dio asko lagundu mokil gogortuak urratu eta bere bizitza luberritzen, hirian eraikitako zoru azpiak sendoegiak baitira apurtzeko.

Horregatik erabaki du bizilekuz aldatzea, basamortua betiko utzi eta lur saila eskuratuta, emankorragoa suerta dakiokkeen eremura hurreratu da. Lurpeak eta lurperatuak burutik ezin kenduta, lur-azalak eskaintzen dionari jaramon gehiago egitea erabaki du, itsu egiten gaituen distiratik urrun.

Melodías mágicas
Toti Martínez de Lezea
+ Soinuaren Bidaia

Otsailaren 24a,
20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
Durangoko Udala

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatelexea@plateruena.net

Otsailak 24 - 2:00etan
ZIGOR DZ
DJ emanaldia

Otsailak 24 - 10:30etan
40 MINUTU ROCK
Kontzertua

Otsailak 28 - 19:30etan
ZINE FORUM POLITIKOA
Zinea

Eskualdeko taldeak milaka zaleren aurrean 40 Minutu Rock jaialdian

Elkartasun jaialdirako sarrera guztiak aurrealmentan saldu dira. Landako Gunea jendez lepo egongo da, beraz



Sermond's-en kontzertua 14:50ean izango da.

MUSIKA • A.M.

Sarrera guztiak aurrealmentan saldu dira, musikazalez lepo beteko da Landako Gunea, bihar. 40 Minutu Rock elkartasun jaialdiaren laugarren edizioa izango da zapatuan. Egun osoko eskaintza musikala egongo da hamabost artistaren eskutik. Besteak beste, Sermond's elorriarrak arituko dira oholtza nagusian, beraien stoner doinu pisutsuekin. Ibilbide luzea du taldeak; halere, zale berriengana heltzeko erakusleihen bikaina izango da Landakokoa.

Karpa txikian Durangaldeko doinuak izango dira nagusi egunaren zati handi batean. DJ Alus abadiñarra 14:00etan hasiko da musika jartzen, eta 20:00ak arte arituko da jaia girotzen. Giroa puri-purian dela taularatuko dira

Gora Etorriko lagunak, beraien bakalaoagaz bertaratutakoak dantzan jartzeko asmoz.

Askotariko doinuak

Durangaldeko ordezkariak gainera, Landakoko oholtzetan momentuko euskal talde garrantzitsuenetako batzuk batuko dira.

Milaka musikazalek egingo dute bat Landako Gunean izango den elkartasun jaialdian

2017an Plateruenan "Sarrerak agortuta" eskegi zuten Glaukoma eta Gatibu (hauek, bi gau jarraian) bertan egongo dira beraien ibilbideko abestirik entzutetsuenak

jotzen. Eguneko beste kontzertu garrantzitsuetako bat Des-kontrol arrasatearren itzulera da. Su Ta Gar beteranoak ere bertan egongo dira, eta ostean, Revolta Permanentek eta Estricallak ere doinu gogorren zaleak asetuko dituzte.

Dantzarako tartea ere egongo da Landako Gunean. Tximeleta tal-

Des-Kontrol arrasatearren itzulera kontzertu garrantzitsuenetako bat izango da

deak emango dio hasiera jaialdiari, 10:45ean. Tremenda Jauria, Zopilotes Txirriaos eta Las Tea Party taldeek ere estilo ezberdinetako dantza-doinuak joko dituzte.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAL

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide

iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA

ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoootalora.com
692 859 779

Zubiurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Garbiketa

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

“Aldapan behera ziztu bizian jaisteak sortzen didan sentsazio hori asko gustatzen zait”

Eski egokituko Espainiako Txapelketa jokatu du, apirilean, Baqueira Bereten (Herrialde Katalanak); ia, urrezko eta zilarrezko dominak lortu zituen

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

**Eskiak sortzen dion pareko zirra-
ra sortzen dio teknologiak Lander
Gallastegiri. Pasioz bizi ditu biak.
Ikusmen-desgaitasuna du eta, be-
deratzi hilabete zituenetik, Itsuen
Baliabidetearen laguntza du, arlo
akademikoan zein sozialean sortu
daitekezkeen oztopoei aurre egite-
ko. Orain, apirilean jokatu den
eski egokituko Espainiako Txapel-
keta du erronka. Eva Muñoz amagaz
etorri da hitzordura.**

Nola hasi zinen eskiatzen?

Lau urte nituela hasi nintzen, Cerler-eko eski gunean (Aragoi), eta gustua hartu nion. Eski egokitua egiten zuen irakasle batek ibili nintzen bizpahiru urtean. Gero, familia guztia joan gara eskiatzera. Ez dut oroitzapen askorik, baina ez zitzaidan bereziki gogorra egin.

Ikusmen-desgaitasunak trabarik eragin dizu eskiatzerako orduan?

Ez, ez dit traba handirik eragin. Normaltasun baten barruan, nire

“**Eskiatzeko, aurretik doan gidariari jarraitzen diot; konfiantza osoa dut berarengan**”

normaltasunaren barruan ikasi dut eskiatzen. Ezkerreko begitik ez dut ikusten, baina eskumako begitik ikusten dut zerbait, ehuneko txikian bada ere. Horrek autonomia handia ematen dit. Eskiatzeko, aurretik doan gidariari jarraitzen

“**Aurtengo eski egokituko Espainiako Txapelketa irabazi gura dut; horixe dut orain erronka**”

diot; konfiantza osoa dut berarengan; hala ere, izotzagaz kontu handia izan behar dut. Eskiatzeaz gain, igeri ere egiten dut, eta atletismoan ere aritu naiz inoiz, leihatu ez arren. Pilota erabiltzen den kiroletan aritzea ez da erraza niretzat. Pilota erabiltzea edo mugimendu azkarrei jarraitzea zaila egiten zait. Hala ere, kirol horiek ez naute batere erakartzen, ez zaizkit gustatzen.

Gaztetxotan hasi zinen leihatzen eski txapelketetan.

Leihatzen, 12 urte gaz hasi nintzen. Haur-kategorian Espainiako bi txapelketa irabazi ditut; 20016an, berriz, gazte mailara igo aurretiko urtean, ez zen txapelketarik antolatu. Berez-berez sortu zen leihatzeko aukera, kirol gutzietan moduan.



Lander Gallastegi Muñoz
Eski egokituan jarduten du
Elorrio 2002

Lander Gallastegi gazte elorriarra bere gidari Andrea Garcia, Baqueira Bereten.

laz igo zinen gazte mailara, eta eski egokituko Espainiako Txapelketan urrea eta zilarra lortu zenituen.

Ez nuen espero. Haur-kategoriatik gazteen mailara igo berria nintzen eta beste eskiazaile batek irabaziko zuela uste nuen, ni baino nagusiago batek; baina jausi egin zen. Sinestezina iruditu zitzaidan urrea irabaztea. Zilarrezko bi espero nituen.

Aurten ere errepikatuko duzu?

Ahaleginduko naiz. Irabazi egin

gura dut. Apirilaren 2an eta 3an izango da Espainiako Txapelketa aurten, Baqueira Bereten (Herrialde Katalanak). Aurretik, FEDC Kopa

“**Gehienetan familiagaz eskiatzen dut. Baina duela urte bi sortutako Ski Denok taldeagaz ere entrenatzen naiz**”

jokatzen da, Espainiako Txapelketarako sailkapena. Madrilen eta Baqueira Bereten jokatu da. Madrileren ezin izan nintzen joan, baina Baqueira Bereten irabazi egin nuen, urtarrilean. Ozta-ozta irabazi nuen.

Nola prestatzen zara?

Gehienetan familiagaz eskiatzen dut. Hala ere, duela urte bi sortutako Ski Denok taldeagaz ere entrenatzen naiz. Asteburuko eta egun bateko irteerak egiten ditugu.

Andrea Garcia gidariagaz leihatzen zara. Zein da bere lana?

Nire aurretik joan, eta berak gidatu behar nau. Bide zuzenetik eraman behar nau, izotza ekidinez. Harreman ona dugu, eta bide onetik eraman nau. Eskerrak! Konfiantza osoa izan behar dut aurrean daradaman pertsonarengan. Gidariak eta eskiazaileak elkar ezagutu behar dute, eta harreman estua sortzen da. Konexio hori sortu behar da. Eskiatzen dudanean nire gidaria da. Ondo hartzen dugu elkar.

Zein sentsazio sortzen dizu eskiak?

Gustatzen zait eskiatzea. Hori baino ez dut egin gura eskiatzen ari naizenean; nekatu artean jarduten dut. Elorriora etorri eta aste pare batera berriro sortzen zait eskiatzeko gogo. Ziztu bizian jaitea gustatzen zait. Orduko 92 kilometroko abiduran jaitsi izan naiz eta aldapan behera ziztu bizian jaisteak sortzen didan sentsazio hori asko gustatzen zait. Gozatu egiten dut eskiatzen dudanean. Asko gustatzen zait Ski Denok taldean jarduteak, elkarrengaz egoteak, eta sortzen den giroa.

Eskiatzeaz gain, saxofoia ere jotzen duzu. Nola moldatzen zara?

Ondo! Entzumen oso ona daukat eta nahiko ondo moldatzen naiz. Erraztasuna daukat abesti bat ateratzeko eta hori jotzeko. Astean birritan taldean jotzen dut, eta kontzertuak ere eskaintzen ditugu.

Teknologia zale amorratua ere bazara. Bai, piloak gustatzen zait. Hamar ordu egin ditzaket ordenagailuaren aurrean, eta ez naiz nekatzen. Teknologiagaz lotuta dagoen guztia gustatzen zait. Arlo horretan ikertzea gustatzen zait.

Zeintzuk dira zure erronkak?

Eskiari dagokionez, aurtengo eski egokituko Espainiako Txapelketa irabazi gura dut; horixe dut orain erronka nagusia. Aurten bukatuko dut Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, eta etorkizunari begira informatika arloan jardun gura nuke.



Bizkaia-Durango eta Sopela taldeak Emakumeen Birara ez gonbidatzeak polemika piztu du

Durungaldeko taldea gonbidapenik barik geratu da maiatzaren 19an hasiko den lasterketan parte hartzeko



Urtarrilean aurkeztu zuten Bizkaia Durango-Euskadi Murias proiektua.

TXIRRINDULARITZA • M.Z.

Aurten, UCiK (Union Ciclista Internacional) Women World Tourrean (WWT) sartu du Emakumeen Bira. Lasterketa maiatzaren 19an hasiko da, eta antolatzaileek itzulian egongo diren 20 taldeen berri eman zuten joan zen barikuan. Zerrendan ikusi daitekeenez, Durungaldeko taldea, Bizkaia Durango-Euskadi Murias, gonbidapenik barik geratu da. Baita Ziortza Isasi elorriarraren eta Olatz Agorria zornotzarraren Sopela taldea ere.

Maila honetako lasterketetan UCiKren rankingeko lehen hamabost taldeek zuzeneko pasea izaten dute. Hau da, ez dute gonbidapenik jaso behar lasterketa batean parte hartzeko. Gainontzeko taldeek, berriz, gonbidapena behar izaten dute lasterketetan aritzeko.

“Gaur egun Bizkaia Durango-Euskadi Murias eta Sopela taldeetako neskek ez dute mailarik WWT mailako itzuli batean ari-

tzeko, eta horregatik ez dute gonbidapenik jaso. Jendeak zer gura du, lehen egunean talde horietako lau txirrindulari lasterketatik kanpo gelditzea?”, adierazi du Agustin Ruiz Emakumeen Birako antolatzaileak. “Gainera, ez dugu uste 18 edo 19 urte dituzten neskek, bizikleta eta ikasketak uztartzen dituztenek, maila izango dutenik WWT mailako lasterketa batean aritzeko. Oso gazteak dira eta nik beraiengan pentsatzen dut. Pazientzia eduki behar da”, jarraitu du Ruizek.

Bestalde, talde hauek lasterketatik kanpo uzteko erabakia “onartezina” dela salatu du Rebecka Ubera EH Bilduko legebiltzarkideak, eta Jaurlearitzarengana jo du gestioak egiteko eskatzera. Uberak esan duenez, “bertoko taldeak ez gonbidatzeko erabakia onartezina eta ulertezina da. Batetik, diru-laguntza publikoa jasotzen duen lehiaketa batez ari garela kontuan hartu behar dugulako. Bestetik, berdinta-

sunaren ikuspegitik ulertezina delako, emakumeen kirola sustatzea eta arlo horretan ere erreferenteak, harrobia eta afizioa sortzea, ustez behintzat, denon helburu denean”.

Bi taldeak lasterketatik kanpo uztea “onartezina” dela salatu dute EH Bilduko kideak



Agustin Ruizek, berriz, “etxeko taldeen” inguruan hitz egiten dela, baina, talde horietan “etxeko txirrindulari gutxi” daudela adierazi du. Horrez gain, irakurleei galdera bat egin die Emakumeen Birako antolatzaileak: “WWT mailako lasterketa bat gura dugu? Hori gura badugu, gure lasterketan profesionalak diren txirrindularirik onenak behar ditugu”.

Adituaren txokoa

Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak



Lehiakortasunaz

Azken asteotan, eguenetako afalosteko plana telebistaren aurrean jarri eta Gailurra Xtreme Perdido saioa ikustea izan ohi da gurean. Iragarkiak zioenez, “Irunen hasi eta GR-11 bidetik Perdido mendira iristea dute helburu 12 lehiakidek”. Denetariko kirolzaleak aukeratu zituzten: arraunlariak, aizkolaria bat, atleta bat, mendizaleak eta triatletak. Aurkezpenean denek esan zuten irabazteko asmoz doazela, lehiatzera doazela. Baina, programaz programa, lehiakideen izaera azaleratzen joan da; Ainhoa Sanz atletaren lehiakortasun handiak talka egiten du, adibidez, Eñaut Agirre mendizalearen jarrerarekin. Ainhoaren erritmo bizia estugarri gertatzen zaio ondarroarrari, mendiaz patxadan gozaten duen horietarikoa omen baita Eñaut.

Lehiaren eta mendiaren arteko harremanaren betiko eztabaida agerian geratu zela sumatu nuen. Zenbat bider entzun izan dugu lehia eta mendizaletasuna ez lirakeela bateratu behar? Zortzimilakoen bilduma egiten ari direnak mendizaleak ez direnik inork gutxik esango du. Baina ez al dira elkarren artean lehiatzen alpinistak ere? Zeinek neguan zortzimilako gehiago igo, bilduma osoa egin duen lehen emakumea, Everest mendia igo duen gazteena edo zaharrena izan nahi horretan ez al dago lehia, ba?

Beste gauza bat da, aipatutako kirol horiek maitatu, baina norgehiagoka aritzea gustuko ez izatea. Nik aspektu guztietan gozaten jarraitzeko asmoa dut, izan ere, mendiak eman dizkidan une gogoangarrienak aukeratu beharko banitu, lehiaketa eta lehiak aritutakoaren arteko asko etortzen zaizkit burura.



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

katerin ardoak
iñaki uribe



Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

“Espainiako Txapelketarako gogotsu nago; nire helburua ondo pasatu eta esperientzia bizitzea da”

Muay Thaya praktikatzen duela urtebete hasi zen arren, joan zen asteburuan Euskadiko Txapeldun gelditu zen Camara



Marta Camara elorriarra Euskadiko txapeldun berria da.

Joan zen asteburuan lehen aldiz igo zen ring batera elorriar gaztea. Orain arte, tatamian aritu izan da; bere kirol ibilbidean tatamiko hiru txapelketatan hartu du parte. “Ilusio handia egiten zidan ring batean aritzea. Hala ere, lehian zaudenean ez zara konturatzen tatamian edo ringean zauden”, aitortu du.

Ringean jokaturako lehen txapelketan “oso gustura” sentitu zela adierazi du Indar XSport taldekoak.

Espainiako Txapelketan

Euskadiko Txapelketan etorkizun handiko boxeolaria dela erakutsi zuen elorriarrak, eta bertan lortutako garaipenari esker, martxoaren 9tik 11ra bitartean jokaturako den Espainiako Txapelketan egongo da. “Espainiako Txapelketarako gogotsu nago; nire helburu nagusia ondo pasatu eta esperientzia bizitzea da”, esan du. Garaipenerako bidea zein den badakiela, eta txapelketara bitartean “gogor” lan egingo duela jakinarazi du boxeolari elorriarrak.

Ring batean jokaturako lehen txapelketan “oso gustura” sentitu zen Marta Camara

Astean hiru bider entrenatzen da Marta Camara. Elorrioren Dani Nuñez entrenatzaileagaz aritzen da, eta Durangon Laureano Laragaz. “Irrikan egoten naiz entrenatzera joateko, asko gustatzen

zait-eta Muay Thayan aritzea”, jarraitu du.

Bizitza aldaketa

Bestalde, Thailandian jokatzeko den boxeo mota honetan kasualitatez hasi zela aitortu du Camarak. “Elorrioren ate irekiak egingo zituztela ikusi nuen, eta joateko aukerarik izan ez nuen arren, egun batean

Dani Nuñezegaz eta Laureano Laragaz entrenatzen da boxeolari elorriarra

Arazoak dituenean, Muay Thayak horiek nola konpondu erakutsi diola aitortu du boxeolariak

probatzera joatea erabaki nuen. Harrezkero, guztiz harrapatuta nago”. Gainera, arazoak dituenean, Muay Thayak horiek nola konpondu erakutsi diola aitortu du, eta bizitza aldatu diola. “Muay Thaian hasteak asko lagundu dit; bizitza aldatu dit nolabait esatearren. Jende asko eza gutu dut eta arazoan aurrean nola jokatu ikasi dut”, jarraitu du.

Bestalde, hurrengo ate irekietan parte hartzeko gonbita egin die elorriarrei eta interesa dutenei. “Ate irekiek kirola barrutik ezagutzeko aukera ematen dute, eta ez dago hori baino gauza hobirik”, bukatu du.

Mendi bizikletagaz gozatzeko hiru ibilbide prest Elorrioren

MENDI BIZIKLETA • J.D.

Elorrioko Txirrindularitza Elkarteak 19. Mendi Bizikleta Ibilaldia antolatuko du datorren domekarako. Hiru martxak 10:00etan hasiko dira, plazan. 36 kilometrokoa da hiruretan gogorrena, 1.171 metroko desnibel positiboagaz. Kanpazartetik, Betsaidetik eta Teilamenditik ibiliko dira. 24 kilometroko ibilbidea samurragoa da, 702 metroko desnibel positiboagaz. Ibilbiderik laburrena 8 eta 14 urte arteko gaztetxoek bideratuta dago eta 90 metroko desnibel positiboa du.

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, proba hasi baino ordubete lehenagotik.

Berriz bertan behera utzi dute ekaineko martxa

MENDI BIZIKLETA • J.D.


Urtero legez, Berriz Bizikletari Elkarteak ekaineko lehen domekarako antolatu gura zuen Berrizko mendi bizikleta martxa. Egun berean, ekainaren 3an, BIBE Transbizkaia martxa aurreikusita dago. Federazioak Berriz Bizikletari Elkarteari jakinarazio dio ezingo dutela egun horretan antolatu, nahiz eta Berrizko martxa federazio-ko egutegian dagoen eta BIBE Transbizkaia ez. Beraz, egoera aztertuta, martxa ez antolatzea erabaki dute. Federazioaren partetik “babes falta” sentitu dute. “Ez dugu erakundeek sustatzen duten txirrindularitza eredu horren alde egingo”, diote ohar batean. Etorkizunean antolatu edo ez hausnartuko dute.

BOXEOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Boxeoan Muay Thai—Thailandian jokatzeko den boxeo mota—modalitatean urtebete besterik ez daraman arren, dagoeneko Euskadiko Txapelketa irabaztea lortu

du Marta Camara Fernandezek (Elorrio, 2000). “Gogo handiagaz joan nintzen Euskadiko txapelketara, eta poz itzela hartu nuen irabaztea lortu nuenean”, adierazi du Marta Camarak.

Asteko kirolaria



MIKEL BIZKARRA ETXEGIBEL
Mañaria, 1989

“Maila oso handia zegoen itzulian. Gustura jardun naiz eta emaitza polita lortu dut”

Andaluziako Itzulia 12. tokian amaitu du eta mendiko etapetan onenekin aritu da

izen handiko txirrindularien artean lehen ibili da.

Pozik egindako lanagaz?

Maila oso handia zegoen itzulian. Gustura jardun naiz eta emaitza polita lortu dut. Beraz, bai, pozik nago egindako lanagaz.

Mendiko etapa batean Chris Froomek eta zuk orpoz orpo amaitu zenuen. Zelan gogoratzen duzu?

Etaparen mendate gainean amaitu zen. Hiru kilometro pasatxo zi-

tuen. Ez zen luzea, baina aldapa oso gogorrak zituen. Une batean erasoak hasi ziren, taldea apurtu egin zen eta banan-banan sartu ginen. Mendate hasieran Froome atzean geratu zen eta, askotan egin duen moduan, bere erritmoa hartuta zuen. Azken kilometro eta pasatxoan harrapatu eta aurreratu egin ninduen. Orduetik helmugara bitartean, denbora guztian bistan izan nuen, baina ezin izan nuen beragaz bat egin. Zazpigarren eta

zortzigarren amaitu genuen. Bera zazpi segundo aurretik.

UCI Pro Tour-eko taldez betetako itzulian taldeka bosgarren amaitzea lortu duzue.

Bai, eta etapa batean taldeka lehengoak izan ginen. Egunero izan dugu baten bat etapa lehiatzeko aukerarekin eta ihesaldietan egon gara. Taldeak eskaini duen maila azpimarratzekoa da.

Arlo pertsonalean, zelan daramazu denboraldia?

Kontinental mailatik kontinental profesional mailarako salto eman du taldeak eta hori igartzen da. Lasterketa askotan gabilta. Aldi berean hiru lasterketa desberdinetan egon gara. Nik neuk hamalau lasterketa izan ditut hogeitaz edo hogeitabost egunetan. Beti erakutsi dugula burua da inportanteena.

Zein da zure hurrengo asteetarako agenda?

Denboraldia hasi baino ez da egin eta jada etapa dezente lehiatu ditut. Beraz, aste hau lasai hartzen nabil, errekuaratzeko. Hurrengo hitzordua martxoaren 19an hasiko den Kataluniako Itzulia izango da. Atsedendia ostean bi-hiru aste izango ditut prestatzeko.

Egindako lanagaz gustura sentitze-ko arrazoiak ditu Euskadi Murias taldeko mañariarrak. Mendiko etapetan aurpegia eman du eta



IURRETA

**Tellitu-n
hurrengo
eraikuntza**

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

**Etorri
ikustera!**

DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren
2 etxebizitzak!**

Durango herrigunean

*Energia eraginkortasun
handiko etxebizitzak*

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

anboto.iragarki-laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/MEGOTOZIOAK	7 ASIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu: www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kortsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

Otxandio. Etxebizitza salgai Otxandion. 125.000 euro. Mainerrota 7, 3. solairua, 88 m2 ditu eta 3 gela. Tel.: 615-73 92 53 Tel.: 645-70 73 36

Mañaria. Pisua saltzen dut Mañarian 200.000 euroren truke. Logela, egongela, sukaldia eta komuna ditu. Guztira 52 metro karratu. Tel.: 688-82 40 27 (Elena)

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durangaldea. Conil de la Fronteran etxea alokagai. Tel.: 615-52 95 00

Berriz. Etxea alokatzen da Berrizen. Bi solairu, lau logela, sukaldia, egongela, bi bainugela eta despentsa. Herri erdigunean. Tel.: 686695997

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durango. Durangon alokairu bila gabilta. Bikote euskaldun, langile eta arduratsua. Epe luzerako etxea nahiko gure, arrazoizko prezioan. Tel.: 665334503

Durango. Alokatzeko pisu bila nabil Durangon. Tel.: 689-27 36 64

PISUKIDE BILA

LOKALAK

LOKALAK ERRENTAN EMAN

Durangaldea. Profesional eta enpresaria arlo sozio-sanitarioan. Pertsonak bilatzen ari naiz bulego edo esparru bat orduka alokatzeko COWORKINGaren bitartez. Gastuak konpartitzeko. Durangaldea-Bilbo Tel.: 690286071. Karmelo

GARAJE/TRASTEROAK

GARAJE/TRASTEROAK SALDU

Otxandio. Otxandion garaje plaza itxi bat saltzen da. Tel.: 675-71 72 83

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK OSTALARITZA

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsonak zaintzen zein garbiketa lanetan. Lanaldi erdian, osoan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-58 58 45

LAN ESKARIAK ETXKO LANAK

ETXKO LANAK ETA PLANTXA. Esperientzia handiko emakumeak bere burua eskaintzen du, orduka etxeko lanak eta plantxa egiteko. Tel.: 645706839

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-37 72 33

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Orduka lan egiteko prest. Tel.:631-85 10 93

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea. Tel.:688-73 55 51

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Ordukako langilea lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 682-18 12 74

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Ordukako langilea. Tel.: 683-55 93 63

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, orduka lan egiteko prest. Erreferentziakin berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-41 41 40

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-57 16 20

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsonak zaintzen lan bila nabil, nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, orduka, gauzez lan egiteko prest. Eskarmentuarekin eta berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-26 24 82

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka, asteburuetan eta gauzez lan egiteko prest. Eskarmentuarekin eta berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-39 60 93

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Ordukako, asteburuetak edo gaueko langilea. Esperientziaduna. Tel.:631-60 94 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Kanpoko langilea lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile lanetan ere. Tel.: 602-86 43 76

Lan bila nabil mendian edo zurgin lanetan. Lan bila nabil mendian edo zurgin lanetan. Baita ere, eraikuntzako laguntzaile moduan. Tel.: 631-54 41 25

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Ordukako langilea lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 681-35 79 04

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-76 21 47

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.:631-27 12 05

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest. Tel.: 632- 57 16 20

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest. Tel.: 632-91 12 08

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 634-70 93 66

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska arduratsu eta esperientziaduna lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 643-13 01 20

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest, eskarmentu eta erreferentziakin. Tel.: 632-71 19 47

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona nagusia, esperientziaduna, lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea, ospitaleetan zein baserrietan lan egiteko prest. Tel.:602-01 61 86

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Mutil esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Ospitaleetan zein baserrietan lan egiteko prest. Tel.:632-30 47 00

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakumea lan bila nagusiak zein umeak zaintzen. Garbiketan ere bai. Orduka zein barneko langile moduan. Berehala hasteko moduan. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita etxe zein tabernetako garbiketa lanetan ere. Orduka lan egiteko prest. Tel.:689-27 36 64

eko prest. Tel.:689-27 36 64

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.:622-85 73 99

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea orduka, gauzez edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.:632-99 02 54

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Andra euskalduna lan bila. Andra euskalduna pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 659-08 81 85

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea astelehentik barikura lan egiteko prest. Tel.: 612-57 73 87

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631-85 25 49

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila pertsona nagusiak zaintzen eta baserriak zaintzen. Tel.: 634-60 09 60

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 602-08 96 49

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil umeak edo nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 603-66 01 75

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko zein kanpoko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 649-41 14 49

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-54 91 67

Orduka lan bila nabil. Lan bila nabil orduka pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.:612-25 13 95

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak

zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, lanaldi osoan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.:660-70 66 18

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea, orduka, asteburuetan eta gauzez lan egiteko prest. Tel.: 632-99 02 54

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea gauzez, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-60 94 09

Lan bila nabil nagusiak zaintzen. Nagusiak zaintzen lan egin gura dut. Tel.: 632-09 00 88

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Tel.: 631-34 52 86

LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

Italiera klaseak ematen ditut. Italiera klase partikularrak ematen ditut, interesa duten pertsonentzat, taldeentzat zein Erasmusen doazententzat. Han jaioa naiz, eta esperientzia daukat. la.gabriele@gmail.com

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZAK PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tel.: 677-32 44 73

Denetarik

HARREMANAK

LAGUN BILA

Lagun bila nabil Durangon. 64 urteko emakumezkoa lagun bila dabil Durangon, dantza egitera joateko, kafe bat hartzeko... Tel.: 609-79 34 39

Denetarik

OBJEKTUAK SALGAI

Ohetik altxatzeko eskulekua saltzen dut
Ohetik altxatzeko laguntza tekniko eskaintzen duen eskulekua saltzen dut. Tel.: 666-41 33 85

Gurpildun aulkia saltzen dut. Pixontzia duen gurpildun aulkia saltzen dut. Tel.: 666-41 33 85

Oruga eskailera saltzen du
Oruga eskailera saltzen dut, igo eta jaisteko. Bateria berria du jarrita. Tel.:666-41 33 85

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEA 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegi

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Gure **Julenek** bihar 7 urte beteko ditu eta urtarrilaren 22an eta 16an **Jasonek** eta **Koldok** 11 eta 10 urte bete zituzten. Zorionak etxeko guztien partez.



Kafea gure dietan

Elikadura arloko Segurtasunaren Europako Agintaritzak (EFSA) egindako ikerketek diotenez, gorputz kilo bakoitzeko, egunean 3 eta 4 mg kafeina artean hartzea jo liteke kontsumo segurutzat. 70 kiloko heldu batek 200 mg eta 300 mg artean hartu behar luke eguneko, gutxi gorabehera; hau da, 2-3 kikatora kafe. Erabakigarria izango da norberak zenbateko tolerantzia duen, pertsona askok sentiberatasuna ager dezakete eta dosi txikiekin.

Kafea nola prestatua dagoen, aldatu egingo da kafeina kantitatea: 180 ml-ko katilu batek 65 mg izango ditu kafe disolbagarria edo berehalakoa bada, eta 125 mg kafe iragazia bada. Eta beste faktore batzuek ere baldintzatzen dute kafeak zer kopurutan emango duen kafeina eta beste substantzia batzuk, adibidez konposatu fenolikoak, zeinak eragin askotarikoak sortzen omen dituzten osasunean; faktore horien artean daude kafe mota, txigortze maila eta mota, eta estrakzio edo erauzte mota. Egun, gero eta adin gazteagoan hasten da jendea kafeina hartzen, edari eta freskagarri energetikoen bidez.

Dirudienek, kafeina gehiegi hartzeak nahasi egiten du loaldia, okerreko eragina izaten du haurren gogo aldarretan eta lotura du gizentasun tasa handiagoekin. Orain artean ez da ikerketa askorik egin, eta, ondorioz, ez dakigu kafeina kontsumoak zer-nolako eragina duen haurren jokabidean eta fisiologian. Eta ez dakigu, halaber, adin horietan zenbatekoa den neurri seguruetan gehienek har daitekeen kantitatea. Onartua dago, hala ere, haurrak eta nerabeak zaurgarriagoak direla kafeinak dituen eragin kaltegarrien aurrean, eta errazago erasaten dietela urduritasunak eta haserre kortasunak.



Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean, sorgintxo. Mosu handi bat gurasoen eta Markelen partez.



Martitzenean **Anderrek** 20 urte egin ebazan. 20 urte oso bereziak etxekoentzat. Zorionak eta mosu bat etxekoen partez.



Zapatuan gure etxeko mutil handiak 6 urte betetzen ditu. Zorionak, **Marke!** Maite zaitugu!



Zorixonak, Simone! 4 urte pasau die konturetu orduko. Etxeko danon partez mosu handi handi bat ta zapatuen ospatuko dogu urtegunen familixa ta lagun danon artien!

Botikak

BARIKUA, 23 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 24 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

DE DIEGO Intraurondo 22 - DURANGO

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

EGUREN, ISABEL

Trañabarren 15. - ABADIÑO

JAIO-OLABARRIETA Errekakale 6. - ELORRIO

ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 25 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 26 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL

Askatasun etorb. 19 - DURANGO

ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 27 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 28 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 1 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



OINETAKO
PATOLOGIAK
NEURRIRA
EGINDAKO
PLANTILLAK
OINETAKO BESTE
HAINBAT GAITZ



Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

“Zoritxarrez, Ronaldok egindako orrazkera guztien arrastoari jarraitu behar diogu; izugarria da!”

Ile-apaintzaile durangarrak soldaduskan hartu zuen abilezia erreminta elektrikoekin ilea mozteko. Melomanotzat du bere burua, eta egunean 12-13 orduz entzuten du musika

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Ile-apaintzaile familian, hirugarren belaunaldikoa da Jesus Ignacio Gomez. Ile-apaindegi familiarra da berea, hala sentitzen dut berak, eta sarreran dituen CDak musikazale amorratuaren etxean gauden arrastoa dira. Aititik ile-apaindegia zuen Galizian, eta aitak ere urteak eman zituen ofizioan. Ararotzen zabaldu zuen ile-apaindegia.

Tradizio handiko ile-apaindegia duzu.

Bai, baditu 60 bat urte! Urte hauetan guztietan leku berean zabalik mantentzen den Durangoko ile-apaindegirik zaharrena izango da. Ia jaiotzen ikusi nauten bezeroak ditut. Harrigarria! Pribilegiatua naiz, gustuko dudana egiten dudalako; urteetako bezero oso fidelak ditut. Ile-apaindegian jaio eta hazi naiz.

Aitak erakutsi zizun ofizioa?

Ofizioaren oinarria beragaz ikasi nuen, bai, 18 urtegaraz. Denbora bat egin nuen beragaz ikasten, lehengo erreminta haiekin, ilea mozteko eskuko makinekin, bizarra mozteko labanagaz, zortzi hazbeteko artazi handiekin... Gero, soldaduskan asko praktikatu nuen; ile-apaintzaile jardun nuen eta, ile asko moztea tokatu zitzaidan. Etxean erabiltzen ez genituen erreminta elektrikoekin abilezia hartu nuen. Itzultzean, ile-apainketa ikastaroak egin nituen.

Asko aldatu da ile-apainketa?

Eboluzio handia egon da. Dibertigarriagoa da orain ile-apainketa. Lehen oso antzekoa zen dena; oso oinarritzakoa, klasikoa. Hiruzpalau ziren ausartzen zirenak. Orain gaztetxoek eskatutako ile-mozteak duela 25 urte eginez gero, salatu egingo nindukete. Ausartak dira!

Famatuen orrazkerak eskatzen dituzte gaztetxoek?

Hala da, bai. Zoritxarrez, Ronaldok egindako orrazkera guztien arrastoari jarraitu behar diogu; izugarria

da! Lehen argazki batez zetozen, orain mugikorrak modelo edo futbolari baten orrazkera eskatuz.

Eskatu dizuten gauzarik arraroena?

Eskariak asko dira: marrazkiak, ilea hiru-lau geruzatan mozteak, alde batera okerturiko gandorra... Baina, dena asmatuta dago gizonen jatorrizko ile-apainketan: duela 25 urte egiten nituen marra eta marrazki txikiak senide eta lagunekin probatzen nituen. “Degradatuak” aitarenean ikusi ditut, tupeagaz.

Gehiago zaintzen dute itxura orain?

Belaunaldi berriari apain agertzea gustatzen zaio, zorionez. Baina emakumea beti izan da gehiago apaintzekoa; gizonak errazera jo izan dute, praktikotasunera.

Bizarra ere mozten duzu?

Konpondu egiten dut, moztu ez. Bizarra ondo eramateko, garbitasuna behar da, eta norberaren fisioformiari edo egiturari ondo datorkion forma ematea. Baina, kosmetologia itzela da. Hipsterrekin modan jarri da, eta negozioa egin gura da.

Musikazale amorratua zara.

Oso melomanoa! Reggaetona eta Djen musika elektronikoa ez beste guztia gustatzen zait: jazz, bluesa, rocka, new agea, folka, zelta... Anaia nagusia ere oso zalea da eta Tangerine Dream, Pink Floyd, Camel... entzun ditut txikitatik. Egutero 12-13 orduz entzuten dut musika, batez beste.

Disko bat?

New Age of Earth (Ash Ra Tempel) edo *Moondawn* (Klaus Chule).

70eko musika elektronikoa atmosferikoa entzuteko grina

du, alemaniarrena. Baina Led Zeppelin ere bai.



Jesus Ignacio Gomez Blanco
Ile-apaintzailea eta musikazale amorratua
Durango | 1963

Ile-apaindegian CDak dituzu salgai. Trukearen zaletu amorratua naiz, hori sustatu gura dut. Baina trukatu gura ez dutenei edo zegaz trukatu ez dutenei merke saltzen dizkiet. Soberan ditudanak dira.

Bilduma handia duzu?

Zenbatzen hasi nintzen behin, baina utzi egin nion 1.500era iristean. Kasetak eta diskoak ere badituz, baina CD zalea naiz, musika oso limurtzailea, suabea, delako. Baina gustukoa baino ez dut gordetzen. Maite dut musika entzutea.

Jostailu piloa duzu ile-apaindegian.

Gela bat beteta. Semea hazita, etortzen ziren umeei oparia emateko aukera ikusi nuen, eta lau erosketa-orga bete nituen. Gero, haien gurasoek e k a r r i egin dizkirate.

Lau-hortza

Mikel Uriguena Ruiz
Irakaslea



Agur

Ez zaude. Zure orde harri eta egur zatiak besterik ez. Ezin du sinistu betirako joan zarelara. Urte hauetan guztietan ez zaitu gogoan izan, baina egunero ikusten zintuen lanerako bidean, geltoki berriko eskailerak jaitsi aurretik, iragan den garaiaren lekuko mutu gisa.

Krisia lehertu aurreko urte zoroak. Denak behar zuen handi, eder, gastuei erreparratu gabe. Herri orok nahi zuen zerbait enblematikoa. Hadidek diseinaturiko eraikin berria proiektu handiagoren parte zen: trenaren lurperatzea eta 5 dorretxe. Etorri zen krisia, joan ziren urteak eta entzun zuen dorretxeena bertan behera geratuko zela, parke erraldoia eraikiko zutela. Benetako parkea. Porlan arteko arnasmuna.

Ez zara inoiz ederra izan; baliteke zure balio artistikoa zalantzarikoa izatea. Ez daki. Baina bai 2018ko Durango ezin dela zu gabe ulertu. Ba, parte-hartze publikoa sustatzeagatik sarituriko udalak ez dio herriari zugatik galde-tu. Ironia ete? Erdi ezkutuan erabaki da zure patua. Krisia joan omen da eta itzuli dira betikoak betiko leloetara. Espekulazioak bukatu du zurekin. Eraberritu zintuzketen eta funtzio berria eman. Baina, badakizu, hori ez da aberasgarria aberastasuna dirutan soilik neurtzen dutenentzako.

Onena zera da, badirudiela durangarrek zu nola gogoratu erabaki ahal izango dutela. Aukeren artean, denak irri-garri eta mingarri, errotonda erdian eskultura bat irudikatu du. Baina argi du zein izan zitekeen zu gogorazteko erarik onena: zutik irautea. Hori bai, garabiek ezin dute memoriarik eraitsi.

AUKERA AZOKA

Martxoak 2, 3, 4

DURANGO 2018 - Landako Gunea

Ostirala - larunbata 10:00-14:00
17:00-21:00

Igandea 11:00-14:00
17:00-19:00

www.dendakbai.com

Dendak Bai Merkataritza Elkartea

946 818 142